

IRUZKINAK ETA GOGOETA TXIKIAK II

XABIER GALARRETA



Lege-Gordailua: SS-1314/2007

Hara gauzak batzuetan nolakoak diren... Deitu didate Irratitik nire lanari buruz hitz egiteko, eta itzulpengintzan nire konturako langile modura aritzeagatik, hizkuntzaren “mertzenarioa” deitu dit irratiko esatariak. Tira, txantxetan esan du (nik hala ulertu dut, behintzat). Hala ere, konnotazio zinez txarreko hitza da hori. Nire ustez, itzultzailea izateak ez luke horrelako konnotaziorik izan beharko. Gainera, hor Irratian lanean aritzen zarenok ez al dituzue mila gai jorratu behar egunen bueltan? Nik, azken urteotan, gai-multzo batzuk landu ditut, bai, baina kazetariok... Hala ere, itzultzaile autonomoa izateak ez du esan nahi astero bezeroz aldatzen naizenik. Alderantziz, ahal den guztia egiten dut dauzkadan lan-harremanei eusteko. Eta bi arrazoiengatik: ogia hortik irabazten dudalako; eta horrek gai batzuk oso ongi ezagutzeko aukera ematen didalako. Esaterako, zortzi bat urte daramat Sustraia programaren itzulpenak egiten (astean bi eguneko lana, irailetik ekainera arte); ia hamabost urte Gipuzkoako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargoaren testuak itzultzen (zirkularrak, informazio orokorrak...); e.a. Bestalde, autonomook beti ez dugu bakarka lan egiten. Sustraiaren kasuan, esaterako, EiTBk bere zuzentzaile-taldea jartzen digu eskura; Gipuzkoako Batzar Nagusietan ere badituzte itzultzaileak eta zuzentzaileak, geuk egiten ditugun lanak begiratzen dituztenak; edo EREIn argitaletxearentzat zazpi bat liburu itzuli

nituenean, argitaletxeko zuzentzaileek zuzentzen zituzten nire testuak; eta abar. Beraz, itzultzaile autonomoa zarela esateak ez du esan nahi bunker batean lanean ari zarenik, edo gauzak edozein modutan egin ditzakezunik, edota inongo irizpiderik/erantzukizunik gabe lanean ariko zarenik. Garraio-enpresa batean lan egiten duen itzultzaileak beti egingo ditu garraioaren alorrari buruzko itzulpenak. Baina Foru Aldundian edota Eusko Jaurlaritzan edota Udal handi batean lanean aritzen den itzultzaileak mota guztietako gaiak jorratu beharko ditu, urteak joan urteak etorri. Eta horrek ez du “mertzenario” bihurtzen. Egia esan, askotan, itzultzaile autonomoak egiten dugun lana eta enpresetako edo administrazioetako itzultzaileek egiten dutena ez dira hain diferenteak; benetan aldatzen direnak lan-baldintzak baino ez dira. Hor bai, alde handiak atzemango ditugu. Tira, gauzak ez dira bere errotik atera behar. Eta suposatzen dut horrek berdin balio duela niretzat edota irrati guztietako esatari guztientzat. A, eta zer esan beharko genuke literaturagile ugari itzultzen dituzten itzultzaileei buruz? horiek ere mertzenarioak al dira? Jakin denok badakigu gogoko duzun idazlearen liburuetan espezializatzea dela biderik onena eta emankorrena. Baina nork egin dezake hori? Aberaskumeek akaso... Eta Nazio Batuentzat eta mota horretako erakundeentzat lanean aritzen diren itzultzaileei eta interpretariei buruz zer esan beharko genuke, ba? Horiek bai “irentsi” behar izaten dituztela mila kontu diferente euren eguneroko/urteroko

jardunbidean. Mertzenarioak al dira hortaz? Nik nire denbora saltzen dut, bai; besteek berena saltzen duten bezalaxe. Ez naiz aberatsa. Lan egin beharra daukat. Alde horretatik, denok gara “mertzenarioak”, geure denbora saldu, alokatu egiten dugunez gero. Baina, tira, mundua hala da. Hori ezin dugu aldatu. Ezin gara uharte bakarti batera bizitzera joan, kokoz eta sardinaz elikatzera. Lanbide askotan existitzen dira bere konturako langileak. Eta ni, horixe naiz: bere konturako itzultzaile bat, besterik ez. Ez dago zertan hainbeste buelta eman kontuari. Horrez gainera, badira gai batzuk bere konturako itzultzaile baten eskuetan nekez suertatuko direnak: dekretuak, legeak, garrantzi handiko testu juridikoak, espezializazio handi-handiko gaiak... Beraz, bere konturako itzultzaile baten eskutik pasatzen diren gaiak nik esango nuke gai-eremu jakin baten barruan sartzen direla, salbuespenak salbuespen. Eta ahaztu gabe, gainera, gai diferenteak lantzeko estilo standard bat garatzea ez dela fikziozko zientziarik, eguneroko errealitatea baizik. Irratian, prentsan, telebistan... mota guztietako gaiak jorratzera ohituta daude itzultzaileak, kazetariak, esatariak... Zergatik? nola lortu duten? Ba estilo zehatz bat landuz. Eta estilo horrek berdin balio die arrantzari buruzko albiste bat emateko nahiz zientziari buruzko beste gai batez informatzeko nahiz Ihesari buruzko azken aurrerapenen berri zabaltzeko. Bada, itzulpen teknikoan ere esan daiteke horrelako zerbait gertatzen dela. Hau da, itzultzaileak “estilo zehatz” bat garatzen du hainbat eta hainbat gai lantzeko.

Azken batean, itzulpen teknikoetan erretorika sobran dago (hau ez da literatura, jaun-andreok); mezuei, edukiei ematen zaie garrantzia. Testuak txukun idaztea eta zuzen azaltzea nahikoa izaten da kasurik gehienetan (eta ez da gutxi!). Jatorrizko testuetan askotan topatzen ez diren ezaugarriak, bertuteak dira horiek, hain zuzen. Izan ere, erdaraz idazten dutenen laurdena ere ez dut uste estiloa landuta daukatenik; bai, euren ama-hizkuntzan idazten dute (batzuek), baina estilorik gabe. Denetik dago: estilo ponposoak, estilo zakarrak, estilo supereliptikoak, lukainka-antzeko estiloak eta antiestiloak. Ez dakit, ba. Denetik. Askotan, itzulpenak jatorrizko lanak baino askoz zuzenagoak direla esango banu, egia handi bat baino ez nuke esango. Itzultzaileok geure itzulpenetan darabilgun estilo simple baina txukunari esker, gure lanek badaukate jatorrizko lanek askotan izaten ez dutena: zuzentasuna, zehaztasuna, apaintasuna. Azken batean, mertzenarioak baino gehiago, hizkuntzaren esku-langileak gara-eta.

Martin Ugalde parkean bigarrenkoz sartu zirenean, eta Donostian bigarrenkoz ere ehun mila pertsona inguru bildu ginenean, zera pasatu zitzaidan burutik manifestazioa bukatutakoan, Donostiako bulebarrean: “Eta hemen geratuko bagina? denok, hemen gauden guztiok, umeak ekarri dituztenak izan ezik, gainerakook hemen geratuko bagina?”. Zeren manifestazioekin

badakigu zer gertatzen den, handik gutxira kaleak erabat hutsik, morturik eta inorgabe geratzen direla. Irauten duen gauza bakarra gure kulturari eta gure jendeari egindako kaltea baino ez da. Manifestazioa, oihuak, amorrua, e.a. e.a., aienatu egiten dira, sekula izan ez balira bezala. Horregatik, hurrengo manifestazio handian, beharbada, bertan geratzeko erabakia hartu beharko genuke. Noiz arte? Ez dakit, benetan. Ez dakit noiz arte. Baina ez genuke etxera joan behar. Hori da “haiek” espero dutena. Bada garaia “espero ez dutena” egiten hasteko. Hurrengo manifestazioan, gera gaitezen kalean. Modu baketsuan. Har ditzagun espaloiak eta galtzadak. Har ditzagun autobideak, errepideak, trenbideak. Modu baketsuan beti. Eta sugarra piz dadila Euskal Herriko herri guztietara. Kataluniara. Galiziarra. Espainiar herrira (zergatik ez?). Nahi duenak bere elkartasuna erakuts diezagula. Baina gera gaitezen kalean. Manifestazioa amaitu ondoren, ez gaitezen sakabana. Egin dezagun espero ez dutena. Espero dutena egiteko, agian hobe etxean gelditzea, gure benetako aurpegia erakusten.

Bestalde, bada garaia Espainia aldean ere hemen gertatzen zaizkigun bidegabekeriak salatzen hasteko. Egia esan, egiten dizkiguten txakurkeriak horregatik egiten dizkigute: badakitelako han Espainia aldean inork ez duela ezer salatuko. Horregatik jokutzen dute halako inpunitatez. Bada,

zerbait egin beharra dago horrekin bukatzeko. Egunkariaren inguruko itxierak, esaterako, oihartzun zabala izan du Katalunia aldean. Galizian ere izan dute guztiorren berri, neurri txikiagoan baina. Eta Espainia aldean, zer? Espainiar guztiak ote ditugu etsai? Ba, ez. Nik behintzat Espainiako buruzagitza politikoa baino ez dut etsai; baina Espainia aldean nik uste dut herritar zibilen artean ere lagun asko ditugula, guk uste baino gehiago akaso. Entzun, Granadan Ibarretxe izan zenean, eskuin muturreko jende asko joan zitzaion oldartzera. Egia. Baina, aizue, han ere bazegoen jende gazte mordo bat, eskuin muturrekoei aurre egiten! Nik hori ezta Euskadin ere ez dut behin ere ikusi. Eta Granadako Unibertsitatea bera izan zen Ibarretxe gonbidatu zuena. Beraz, nik esango nuke lagunak leku guztietan ditugula. Duela gutxi, Madrilen hauteskunde ustelak berrantolatu zituzten. Gauza bat esango dizuet: hauteskundeen bezperan, hegazkin arin batetik bostehun mila paskin bota izan bagenitu, PPK euskaldunok ematen digun tratua modu ikusgarri batez salatuz, beharbada PPK ez zukeen eskuratuko izango gehiengoa lortzeko behar zituen 1-2 aulki horiek. Paskin horietan, esaterako, Gasteizko mutikoaren aurpegi desitxuratua azal zitekeen (badakizue, polizia-etxetik pasa aurretik eta pasa ondoren kolpez eta torturaz aurpegia guztiz desitxuratutako mutil arabar horren argazkiari buruz ari naiz, hemen Euskal Herrian hainbesteko zirrara sortarazi ziguna). Gogoan dut, mutikoa Auzitegi Nazionalera eramán zutenean, bertako funtzionarioei agindu

zietela euren bulegoetan egoteko, korridoreetara muturra ez agertzeko. Zergatik? Ba, lekukorik nahi ez zutelako. Bada imajina ezazue bostehun mila paskin Madrileko kaleetan, guzti horren berri emanaz, gertatutakoa salatuz. Madrilen, Cadizen, Kordoban, Valentzian edo Murtzian. Berdin zait. Gure salaketak Espainiako leku guztietara heldu beharko lirateke. Espainiako leku guztietara. Internet, betiko posta, posta elektronikoa, buzoneoak, telebista digitala, prentsa, hitzaldiak, kartelak... Modu asko daude jendearengana iristeko. Baina, hori bai, erakutsi beharko genieke euren herritarren aurrean ere erantzun beharko dutela, ez bakarrik euskal herritarren aurrean (gugandik boto gutxi lortzen dutenez, bost axola ematen diegu-eta). Eman dezatela aurpegia beraien herritarren aurrean ere. Hori lortzen badugu, bidearen erdia eginda izango dugu. Nork antolatu behar du, baina, horrelako ekimen erraldoi bat? Partikular batek? Herritar-talde batek? Zertarako, hurrengo egunean atxilotuak izateko, ETAkoak izatearen akusazio faltsupean? Ez. Euskal erakundeak dira ekimen hau bultzatzeaz arduratu behar direnak: Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak, Batzar Nagusiak, Legezko Alderdi Politikoak eta Erakundeak... Eurei dagokie horrelako ekimen bat antolatzeko ardura. Baliabideak beraiek dituztelako eta —oraingoz, behintzat— horrelako erakundeen ordezkariak kartzelan bukatzeko arrisku ageririk ez dagoelako (oraingoz, diot, bai... baina espabilatzen ez bagara, auskalo zer gerta daitekeen geroan...).

Beste proposamen interesgarri bat Txandakako Greba Etengabea izango litzateke. “Iruzkinak eta Gogoeta Txikiak” izeneko liburuan azalduta dago zertan den.

Egia esan, garrantzitsuena une honetan proposamenak bildu, aztertu eta martxan jartzea da. Proposamen batzuk onak izango dira, beste batzuk ez hain onak, edota bideratzen zailak, e.a. Baina orain erakutsi behar dugun espiritua, nire ustez, hori da: gure irudimena eta kemena erakutsi behar ditugu, nork bere arloan.

Guk idazleok jende irudimentsua omen gara. Hori egia baldin bada, erakuts dezagun. Irailaren 11n Dorre Bikiak jasandako atentatuaren ostean, CIAkoak zine-gidoilariengana jo zuten aholku eske. Bueno ba, idazleon irudimena badirudi erabilera anitz izan ditzakeela. Ea egia den. Froga dezagun.

Dena den, guzti honen gakoa lehen aipatu dudana esaldi labur honetan dago: “egin dezagun espero ez dutena”. Esaterako, beraiei sekula ez zaie burutik pasa ere egin guk espainiarrengana jo dezakegunik elkartasun eske edota... batasun eske. Baina, zergatik ez? Nikaragua, Kuba, Salvador, Guatemala... Guk badakigu oso harreman onak

izaten mundu latinoarekin. Baliteke gu geu ere nahiko “latinoak” izatea. Espainia ez zaigu horren arrotza. Ziur nago jende xume, borondatetsu eta zuzenarekin harreman onak izatea ez litzaigukeela bat ere kostako. Madrileko azken hauteskundeetan, esaterako, partehartzea %50ekoa izan zen. Non geratu ziren gainerakoak? Etxean, noski. Zergatik? Ba zeinek ordezkatu ez daukatelako. Eta Espainia osatzen duten eskualdeetako jendearekin batuko bagina, denon artean fronte bat osatzeko? Andaluzia, Gaztela eta Leon, Extremadura... Nazioen Espainia ulertzen dutenekin bat egin alegia. Hori ez dute espero. Eta nire ustez, egingarria da. Baditugu lobby handi batzuk guztiori mugitzen hasteko: Katalunia eta Euskal Herria. Galizia ere hor dago. Eta beste eskualdeak ere hor daude. Beste “Espainia” bat dago, komunikabide ofizialetan sekula agertzen ez dena, ultraeskuindarren bortxa asteburu guztietan jasan behar izaten duena (Real Madrilek jokatzen duen guztietan, esaterako), intelektualak (benetakoak!) biltzen dituen, IU-ren adar aski zabaletan ere islatzen dena (ez beti); antzinako alderdi komunistak eta ezkerreko jendeak, ekologistak, globalizazioaren aurkako mugimendua, bakezaleak, gerraren kontrakoak, GKEak... Hor mundu zabal – eta eskuzabal bat dago—. Gure mezua haiengana helaraztea lortzen badugu, hortik ez gara esku-hutsik itzuliko. Egon ziur.

Martin Ugalde parkearen eta euskal kulturgintzaren aurka egindako bigarren gertaerak salatzeko, Donostian bigarrenik eginiko manifestazio erraldoian, zenbait momentutan (oso gutxitan, egia esateko), gogoko ez nituen zenbait oihu entzun nituen. Eta orduan ausartu ez banintzen ere, orain ordea bai, ausartzera noa oihu horiei beste oihu batzuekin erantzutera:

Hemén gaudén guztíok béhárrezkóak gárá!
Hémen eztágo ínor soberán!
Góra Éuskádi éuskaldúna!
Dénok batúta ibíli behár dugú!
Bátasúná da gúre indárrá!
Euskal Herria aúrrerá!
Bakéá behár dugú!
Eúskál kultúra dénóná da!
Eúskal kultúra gúre ondáreá!

“Matrix” izeneko filmaren bigarren bertsioa-edo ikusi dut eta irudi ezin pobreagoa eman dit. Nik ikusita neukan lehenbiziko bertsioa, eta egia esan, gidoiaren aldetik erakargarria iruditu zitzaidan orduko hartan, benetako zientzi fikzioan oinarriturik zegoen eta. Horrez gain, “borrokak” eta karateka guztiorien agerraldiak askozaz murriztagoak ziren aurreneko bertsioan. Zabor-filma iruditu zait. Eta kezkarria deritzot, gainera, gure gazteek horrelako filmetan euren ereduak bilatzen (eta aurkitzen!) dituztela jakiteari.

Pertsonaien estereotipoak, hizkera, adierazpideak eta abar erridikuluak, barregarriak iruditu zaizkit, benetan. Tira, zorionez, duela gutxi Polansky-ren “Piano-jolea” filma ikusteko zortea izan dut, eta horrekin alditxo baterako ederki asebetterik utzi dut nire film-egarria. “Orkidea-lapurra” filmak lortu ez zuena, hain zuzen. Nik, egia esan, gero eta garbiago dakust: gidoi handi baten goi-mailakotasunak abiapuntu edota oinarri sinpleagoa behar du, benetako fantasia hortxe jartzen baita aproban, istorioaren sinesgarritasun eta errealitatea itxuratzeko bere ahalmenean alegia (nahiz eta guztiz fikziozkoa izan). Hori ulertzen ez duen gidoilaria ez doa inora; zorte apur batekin, golkoa diruz bete eta tontoen laudorioak irabaziko ditu. Baina hau ez dut esaten “orkidea-lapurra” filmagatik, zentzu orokorrean baizik. “Orkidea-lapurra” ikusteko moduko filma da eta.

Irakurri berri dut “Sisifo maite minez”, Laura Mintegirena. Eta irakurketa atsegina izan da. Euskara arina eta trinkoa darabil Mintegik, eta atal batetik bestera eramanez nau neke handirik gabe. Liburuak, hala ere, ez du “emakume-literatura” etiketari ihes egitea lortu, nire ustez. Ez dakit zenbat aldiz agertzen den “maitasun hitza”. Eta behin eta berriro errepikatzen dira “emakumeon” ikuspegiari loturiko gure garaiotako hainbat topiko...: jarrerak... iruzkinak... liburuan batzuetan erabiltzen den tonu “irakasgarria” (irakurleari

erakutsi beharko balio bezala maitasuna zer den, nola maitatu behar den...). Badago androginia-punttu bat, gizon askoren liburuetan misoginia-puntturen bat egon ohi den bezala. Protagonista: seme-alaba txikiak abandonatuta, maitale batekin ihes egiten duen gurasoa. Garbi dago, beraz, ez gaudela heroi baten aurrean; alderantziz baizik. Zenbait momentutan, kulebroi-itxura hartu diot nobelari. Eta W. Allen-en umorea ere ekarri dit gogora: Esteban (Ane-ren psikoanalista edo psikiatra) Karmelekin ligatzen hasten denean, esaterako (liburuan seriotan ari badira ere). Gustatu zait, esaterako, maitemintzea eta Sisifo-ren lanak nolabait alderatzea; eta absurdu batek nola eramaten gaituen beste absurdu batera. Ideia hori, berez, ona iruditzen zait. Areago, liburuaren argumentua zutik sustengatzen bada, ziur aski horrengatik izango da. Bestalde, zenbait alderdi gutxi landuta edota izugarri sinplifikatuta zeudela iruditzen zait. Esaterako, Ane itzultzen denean, bere senarrak besterik gabe onartzen duenekoa. Hau da, etxetik kanpo zazpi bat urtez izan eta gero, neska senarraren etxera itzultzen da eta honek noski besterik gabe onartzen du (emazte prodigoaren parabola...? gaurko gizonak hartu beharreko jarrera ote, benetan gizon “arauera” izan dadin...?). Tira, ez dut ukatzen hori “gerta daitekeela”, baina hala ere, gehiago azaldu beharko litzateke alderdi hori. Laura Mintegi bera konturatzen da gabezia horretaz, eta liburua bukatu alderantz hutsa nolabait konpontzen saiatzen da, baina oso garbi dago adabakia baino ez dela. Tira, ongi idatzitako

liburua da, gizonon ikuspegia inarrosteko ere balio duena. Ongi etorria izan bedi, beraz, (aspaldiko) plazara.

Askotan, nago, itzultzaileok ere ez garela ohardun, itzultzen ditugun liburuek noraino hartzen duten jatorrizko liburuaren lekua. Esaterako, nik maite izan ditudan poeten artean, Pessoa jarriko nuke goi-goian (zeruan). Irakurri ditut —eta jarraitzen dut irakurtzen— beste poeta asko, inork kordokatu ez banau ere Pessoa adina. Dena den, nik ez dakit portugesez. Beraz, Pessoa baino, Pessoaaren itzultzaileak dira nik maite izan ditudanak. Beste horrenbeste gertatu zait Whitman-ekin edota Céline-rekin. Eta egia da, bai, nik ingelesez eta frantsesez, jakin, badakidala, baina... ez euskaraz edota gaztelaniaz dakidan bezain ondo, eta beraz, Whitman edota Céline euren jatorrizko hizkuntzan irakurriz gero, egin behar dudana ahalegin berezia dela-eta normaltasunetik ateratzen nau irakurle bezala. Horregatik, diot, jendea, oro har ez dela ohardun —ezta itzultzaileok ere—, itzultzen ditugun liburuek noraino hartzen duten jatorrizkoaren lekua, arima bera...

“Gutiziak” liburua irakurtzen ari nintzela, pentsamendu bat etorri zait burura: “Eta, zergatik uko egin behar diogu emakumearen unibertsoa

ezagutzeari? Zergatik jokatu behar dugu beti soberbia horrekin?”. Eta benetan uste dut horrelako galderek ate asko irekitzeko balio liezaguketela.

Badago gauza bat aspalditik argi utzi nahi nukeena: itzuli ditudan literatur lanetan zeintzuk diren jatorrizko hizkuntzatik eginak eta zeintzuk zeharkako hizkuntzaren batetik eginak. Hona hemen zerrenda:

Jatorrizko hizkuntzatik itzulitakoak:

- ? “Bihar”, “Inozoak” eta “Aurrerakuntzaren Aurrelaria”, J. Conrad
- ? La mariquita, D.H. Lawrence
- ? Azeria, D.H. Lawrence,
- ? Gizon mantsoa, A. Christie
- ? Saltzaile baten heriotza, A. Miller
- ? “Hiria” eta “Kalidoskopioa”, R. Bradbury
- ? El diablo en el cuerpo, R. Radiguet
- ? Arrotza, A. Camus
- ? Antologia poetikoa, L. Aragon
- ? Koplak aitaren heriotzagatik, J. Manrique
- ? Urrezko gizona, R. Darío
- ? Eskailera, I.F. Flórez, “Fernanflor”

Zeharkako hizkuntzaren batetik itzulitakoak:

- ? Elur-Bisutsa, A.S. Pushkin
- ? Makaloako Zerria, J. London
- ? Eskale filosofoa, M. Gorki
- ? “Garaipen Oda” eta “Itsasoko Oda”, F. Pessoa
- ? Belar-Hostoak (“Eskaintzak” eta “Paumanok-etik abiatu nintzenean”), W. Whitman

Jatorrizko hizkuntza eta zeharkako hizkuntza —
biak— erabiliz itzulitako liburuak:

- ? Jekyll Dk. eta Hyde Jn., R.L. Stevenson

Bestalde, badago beste gauza bat, niretzat zinez baloratzekoa: itzulpenak izan arren, “itzulpen-kutsua” galdu, jatorrizko liburuaren lekua hartu eta benetako debozioa sentiarazi diguten itzulpenen kasua. Esaterako, jende askok dio: “Gunter Grass liluragarria da”, “Pessoa da nire poetarik kuttunena”, “Saramagoren liburuak zoragarriak dira”, “Celine-ren ‘Gauaren muturrerainoko bidaia’ inoiz irakurri dudan nobelarik onena da niretzat”; eta abar, eta abar. Horrelako esaldiak sarritan entzuten ditugu. Aldiz, irakurlerik gehienak ez dira gauza izaten aipatu ditudan egileak euren jatorrizko hizkuntzan irakurtzeko. Günter Grass alemaneraz gauza bat da;

baina Günter Grass euskaraz edota gaztelaniaz edota frantsesez, ez da Günter Grass bera, horren erreplika baizik. Beraz, irakurlerik gehienek hainbeste maite dutena dagoeneko ez da “benetako egilea”, egile horren “erreplika” baizik. Zilegi al da erreplika horretatik abiarazita itzulpen bat egitea? Niretzat bai, zilegi da, baina baldintza batekin: itzultzaileak erreplika hori benetan maite izatea, jatorrizko lanaren pare edukitzea, eta erreplikari benetako debozioa hartzeraino heldu izatea... Orduan bai, itzultzaile horrek erreplika horren itzulpena egiteko zilegitasun guztia dauka. Egia esan, nik hor koska bakarra ikusten dut: “jatorrizko itzultzaileari” zor zaizkion egile-eskubideen kontua. Dena den, diruaz eta munduko egile-eskubide guztiez harantzago badago beste zerbait, eta zorionez, “beste zerbait” hori kaiola baten barruan atzipetuko duen taloitegirik ez da oraindik asmatu mundu honetan.

Hemen esan ditudan gauzak ulertzen ez dituenak hobe luke bere esnobismo barregarri eta patetikoa nonbait aparkatuta utziko balu.

Oso ederra, bere tamainan, Juan Kruz Igerabideren “Mailu Isila” poema-liburua. Benetako olertia.

Ez dakit zergatik izango den, baina “sexualitatean adituak” diren guztiek kristoren barregura eragiten didate. Izango da, apika, gurasoa naizelako.

Ostiela-n ere hasiak dira “sexualitateari beste modu batez begiratzen”. Ez ahal dira amaituko sexu-kontsultategiren bat jartzen...

Batzuk hasten dira ekimen bat abian jartzen, euren espresibitateari bide bat edo beste emateko; eta bukatzen dute produktu (erdi labeldun) bat saltzen.

Nik diot Gongorak (edo Quevedo-k —ez naiz gogoratzen orain—) zioena: “Ande yo caliente y ríase la gente”.

“Mentura dugun artean”, Anjel Lertxundik idatzia eta Alberdanian plazaratua. Lan biribila da. Ez dakit zer akats atera liburu honi (eta hori arraroa da nigan...). Anjel Lertxundi pentsalaria nobelagilea bera baino gehiago preziatzen ote dut...? Asko gozatu nion bere Otto Petteri, “baina”

orokor bat aurkitu banion ere. Kasu honetan, ordea, eztitan utzi nau Lertxundiren pentsamenduak. Egia esan, euskarak pentsalariak behar ditu. Narrazio bat, ipuintxo bat, nobelatxo bat... Hori edonork idatz dezake. Baina pentsamendua garatu eta liburu trinko batean gorpuztea, hori ez dago, ez, edonoren esku.

Berroeta gurasoa hil dute Iruñean. Hilketak salatzeke manifestatu direnen aurka gogor aritu da polizia. Zer dela eta, ordea? Lau tiro emanda hil dutenaren omenez eginiko dolu-adierazpenak soil-soilik egin al daitezke hildakoak alde batekoak direnean, ala? Horrela jokatzek kiratsa baino ez du zabaltzen gure inguruan. Eta gauza horiek Iruñean gertatzea, beno, tira... han badakigu nork agintzen duen. Eta UPN-PPtik ezin besterik espero. Baina, non dago euskal alderdi politikoen espiritu demokratikoa? Zergatik jazarri dituzte hemen eginiko manifestazioak? Pertsona bat hil dute. Erailketa izan da. Oso larria. Zergatik ezin da manifestaziorik egin, baketsuak direnean (Hernanikoa, kasu)? Areago, goi-agintariek zergatik ez dute parte hartu erailketa hori salatzeke antolatu diren manifestazioetan? Euren hildakoak lurperatzera baino ez al dira joaten? Hori al da beraiengandik jaso behar genuen “irakaspen demokratiko” handia? Ba gorde dezatela beraientzat orduan...

Pello Lizarralderen “Larrepetit” liburua ari naiz irakurtzen, eta egia esan, gustura. Dena den, galdegaia beti amaieran jartzeko mania horrek halako monotonía bat ematen dio liburuari (bere prosari). Uste dut horixe dela liburu honen alde txar ia bakarra (eta ez nolanahikoa).

Aralar-ren sorrera poz handiz ikusi nuen bere garaian. Batez ere, Nafarroagatik poztu nintzen, UPNk agintzen duen euskal lurraldean errekarra jo duen euskaltasunagatik poztu nintzen. Bestalde, han, Nafarroan, hasieratik bertatik eman ditu emaitza onak Aralarren alternatibak: bai udal hauteskundeetan bai Nafarroa bai koalizioaren eskutik aurkeztutakoetan emaitzak onak izan dira lehenbiziko momentutik. Beraz, garbi dago Nafarroak horrelako erakunde baten beharra zeukala. Aldiz, ez dago hain garbi beste hiru lurraldeetan premia hori norainokoa den. Esan nahi dut orain arte izan diren emaitzak ez direla Nafarroakoak bezain onak izan, ezta urrik eman ere. Beraz, ez dut uste Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban Aralar ezker abertzalearen lekua hartzera helduko denik. Ezker Abertzaleak, beraz, betiko ezker abertzalearen premia du hiru lurralde hauetan. Hobe gaur egun dauden arazoak lehenbailehen konponduko balira, eta ezker

abertzaleak batasunerantz joko balu, indarkeriaren eta ETArekiko morrontzaren garaiak atzean utzita.

Askotan esaten da euskal itzulpenak, oro har, gordinak edota irakurtzen zailegiak edota ilunegiak direla, beste hizkuntza batzuetara eginikoak baino gehiago bederen. Arazo horren errua, neurri handi batean, jatorrizko hizkuntza guztiz ez menperatzetik etor daitekeela uste dut. Alde horretatik, emaitza askoz hobeak lor litezke guztiz menperatzen den zeharkako hizkuntzaren batetik itzuliz gero, erdi-ipurdi menperatzen den jatorrizko hizkuntzatik itzultzeak baino. Badakit asko oldartuko zaizkidala hori esateagatik. Badakit jatorrizko hizkuntzatik xuxen arraio eginiko itzulpenak direla baliorik handienekoak. Baina guk arazo bat daukagu eta arazo hori konpontzeko edota arintzeko balio digun ezer ez genuke baztertu beharko. Gure herria txikia da. Espainian, Frantzian, Ingalaterran... erraza da munduko hainbat eta hainbat hizkuntza guztiz ongi bereganatuak dituzten itzultzaileak topatzea. Guri, ordea, zailago gertatzen zaigu oparotasun hori aurkitzea. Herri txikia izateak bere mugak ditu eta. Itzultzaile batek hiztegia eskuan edukita itzuli behar duenean, hizkuntz estetikaren zentzua galdu egiten da. Sena bera zapuztuta gelditzen zaiolakoan nago. Kalitate oneko itzulpena lortzeko, beharrezkoa da “abiaduraz” itzultzen jakitea.

Horrek ez du bueltarik. Nork bere ondorioak atera ditzala.

“Soñadores”, “Generación Robada”, “El hombre del Tren”, “La piscina”, “Balzac y la costurera china”, “Together”, “Desenfocado”, “La boda del Monzón”, “Érase una vez”, “En la habitación”, “Lejos”, “Qué hacer en caso de incendio”, “Pinocho y Gepetto”, “El Ritual”, “Pan Tedeusz”, “Wilbur se quiere suicidar”, “Secretary”, “Fahrenheit 9/11”, “El manantial de las colinas”, “Diarios de motocicleta”, “El polaquito”, “Good bye, Lenin”, “El Sr. Ibrahim y las flores del Corán”, “Contra la pared”, “Coffe and Cigarettes”, “Alrededor de la medianoche”, “La joven de la perla”, “El Maquinista: el hombre sin sueño”, “Les Héroïnes du mal”, “Un toque de canela”, “Hooligans”, “Ser y tener”, “La vida es un milagro”, “El hundimiento” “21 gramos”, “Ray Charler”, “Largo domingo de noviazgo”, “Parich”, “Magnolia”, “American Splendor”, “Moebius”, “Cabeza Borradora”, “Lundi Matin”, “El Cielo sobre Berlín”, “Brasil”, “Labyrinth”, “El Baño”, “Lloviendo piedras”, “Fallen Angels”, “Hierro 3”, “¿Qué hora es?”, “El aviador”, “Los educadores”, “Lost in Translation”, “El Arco”, “Down by law”, “Elephant”, “Bailar en la oscuridad”, “Piratas”, “Tetsuo I” (El Hombre de Hierro), “El Azar”, “Sin Fin”, “La Cicatriz”, “Riff-Raff”, “La ciudad de Dios”, “Syriana”... Jarraitu niri istorioak kontatzen,

arren! Eta zin degizuet nik ikatza ateratzen jarraituko dudala, meatze izugarri honetatik.

Zerurik badago, musikaz beteta egon behar du.

Euskal pintore batek eginiko adierazpenetan, aitortzen du musika klasikoa ez duela maite. Pintore ospetsu horrek kristoren pena eman dit. Benetan. Artista tamalgarritzat jo behar izan dut. Ez dut beste erremediorik izan. Begira, gauza bat esango dizuet: artista baldin bazara, esteta izan behar duzu. Edertasunari loturiko arte-adierazpen guztiak maite behar dituzu. Zure gustuak bultzatuta, hau eta hura beste hau eta beste hura baino gehiago edo gutxiago maiteko duzu. Baina pentsaezina da arte-diziplina bat erabat ukatzea. Hori egiten duen artista niretzat artista amorfoa da. Eta pueblerinoa izatetik, hark berak uste baino hurbilago dagoelakoan nago.

Eusko Jaurlaritzak ez du xakea kiroltzat onartu nahi izan. Horren ondorioz, xake-federazioa eta Euskal Herrian xakeari loturiko ekimen guztiak azpikoz gora geratuko dira, kasik ezabatuak segur aski. Benetan baina horrelako erabakiak hartzen

dituzten politikariek argi eta garbi ikustarazten didate betidanik sumatu izan dudana: ikasgelako ikaslerik azkarrenak finean tonto batzuk baino ez zirela, gure gizartea gidatzen duten politikarietatik asko politikeroak baino ez direla, tripaundi ergel eta erdi-analfabeto teknokrata batzuk baino ez direla, eta beraiek gabe askoz hobeto egongo ginatekeela. Ez dakit anarkistek arrazoi ote zuten, baina horrelako gidari politikoak izateko, hobeto geundeke geure kasa.

Orain dela urte gutxi, Euskaldunon Egunkaria itxi baino lehentxeago, neska batek deitu zidan nik euskaratuta neukan A. Miller-ren Saltzaile baten Heriotza izeneko antzerti-lanari buruz artikulutxo bat idatzi nahi zuela esanez. Galdera batzuk idatziz bidali zizkidan eta nik ere idatziz igorri nizkion horien erantzunak, eta material horrekin eta berak bildutako beste batzuekin kazeta-lana osatuko zidala esan zidan. Handik egun batzuetara, ordea, deitu zidan esateko ea inporta zidan nik berari pasatako iruzkinak bere horretan agertzea. Bueno, baina testuak apur bat jorratzeko eta lantzeko eskatu nion, nik berari pasatako gauzak ez baitzeuden pentsatuta argitaratuak izateko, kazetariaren artikulua osagarri izateko baizik. Aldiz, artikulua atera zenean, gauzak ez ziren behar den bezala agertu. Artikulua ez zegoen landuta. Nik aditzera emandako ideia batzuk hantxe agertzen ziren nik

berari pasatu nizkion bezala, landu gabe alegia. Artikuluak, ordea, neronen izen-abizenak zeramatzan. Neuk paratu izan banu bezala. Ez dakit. Min egin zidan, zeren *gauzak “edozein modutan” egiteko, ez baitut inoren laguntzarik behar*. Hori aditu nahi al zenuten? Ba aditu ezazue. Hori bai, hurrengoan, egizue existituko ez banintz bezala, faborez. Denok eskertuko dugu: nik, irakurleek eta zuek zeuek.

Nobela ez dago hilda. Poesia ez dago hilda. Literatura ez dago hilda. Ezer ez dago hilda, gogorik gabe idazten duena baizik, gogorik gabe irakurtzen duena baizik. Azken batean, gogo-kontua da, estilo-kontua baino gehiago. Horrek, nik uste, zera guztietarako balio du.

Eulien bazka, Asier Etxeberriaren nobela ari naiz irakurtzen, eta gustura. Bai, jauna. Nobela arina baina atsegina. Etxeberriak ez du, zorionez, bere betiko umore ona galdu, eta nobela beltzaren traza daukan narrazio labur honetan ederki jartzen da hori agerian. Stanley Kubrick-en gidoi batean oinarrituriko filma ekarri dit gogora: *Eyes Wide Shut* (1999. urtea). Dena den, klub sekretu eta misteriotsuaren kontua kenduta, gidoiaren garapena guztiz berezkoa eta originala du. Zenbait momentutan, Asier Etxeberriaren pentsamendua

agerikoegia da, egilea narrazioaren bilakaeran tarteratuko balitz bezala. Dena den, gutxitan gertatzen da eta esaldi bakan batzuen isla baino ez da izaten gehientsuenetan. Oraindik ez dakit liburua nola bukatzen den, azkeneko hiru ataltxoak geratzen baitzaizkit irakurketa amaitzeko. Baina orain artekoaz pozik nago. 12,50 €. Ongi inbertituak.

Oro da perbertsioa. Gure asmo onak, gure goi-mailako sentimenduak, gure hobeak izateko nahia, gure jakintza areagotzeko gogoa, gure ontasuna, gure ongizate utopikoa, gure espiritu iraultzailea, gure aldarrikapenak, mundu hobeagoa lortzeko gure desirak... Den-dena da perbertsioa. Sexu-perbertsioa da, hala ere, perbertsiorik agerikoena –baita amarrugabeena ere (behintzat helduen artean eta borondate osoz gauzatua denean)–.

Euskaldun batzuek badirudi “oso garbi” daukatela: euskarara itzultzeko ezinbestez guraso euskaldunak izan behar ditugu. Hau da, ez dute guztiz elebiduna den euskaldunarengan sinesten; hau da, ez dute guztiz elebiduna den euren herrian sinesten. Horrelakoek hizkuntza ardurarik izango ez balute, gaitz t’erdi. Baina sineskera kaltegarri hori daukateneak hizkuntza arduraren bat euren esku

daukatenean, orduan hori bai kaltea euskal herriarentzat. Horrelakoei hauxe baino ez nieke esango: “Ez al duzue ezagutzen erdaraz ongi moldatzen den euskaldunen bat edo beste? Eta hori, harrigarria egiten al zaizue? Beno, ba, norabide batean funtzionatzen duenak beste norabidean ere ongi funtzionatzen du.” Baldar eta trakets samarra izan behar da, hain begi-bistakoa eta sinplea den kontuaz ohartzeko gai ez dena. Eta norbait baldarra eta traketsa bada, niri –egia esan– bost axola, baldin-eta hizkuntza ardurarik ez badauka. Baina baldarra eta traketsa bada eta aldi berean hizkuntza-arduraren bat badu, orduan bai, axola zait, eta asko gainera.

Dena den, ni hizkuntz mertzenarioa banaiz, orduan zu hizkuntz torturatzailerak zara. (Efe Agentziak *zurekin* euskaraz lan egiten ez badu, behintzat).

Ez dakit. Batzuetan, Bartleby sentitzen naiz. Itzulpen tekniko madarikatu hauek...

Bizitza osoa orri-multzo bat baino ez da, bakoitza bere zenbakiarekin...

Badira euskaldun batzuk erdarakadei buruz iritzi guztiz okerra dutenak. Horrelakoen ustez, erdarakadak sortzen dituzten bakarrak euskaldun berriak dira. Hori, gehienera ere, egia erdia baino ez litzateke izango. Areago, nik esango nuke euskarara “hobekien” igaro diren erdarakadak euskaldun petoek eginikoak direla. Eta hain zuzen, horretxegatik igaro dira euskarara “inpunitate” osoz: euskaldun petoengandik zetozenez, gainerako euskaldunen mesfidantza-kontrolak erraz gainditu dituztelako. Dena den, erdarakada batekin topo egiten dugun bakoitzean, saihestu beharra daukagu hura gaitzesteko “gerrako terminologia” erabiltzea: “sasi-euskaldunak soilik erabiltzen dituzte horrelako erdarakadak” eta horren antzeko esaldiak iraingarriak baino ez dira, eta kontuan hartuta erdarakadak euskaldun elebidun guzti-guztien eskura daudela, ba hobe dugu tentu handiz ibiltzea, geure lagunak eta senideak ez iraintzearren eta ez mintzearren.

Dena den, onartu beharra daukat: erdarakadei dagokienez, batzuek neurririk gabeko axolagabekeria erakusten dute. Eta horrelakoen aurrean, erraz galtzen da egonarria.

Baina, mesedez, ez gaitezen eror errazkerietan, eta berriro diot: euskaldun zaharrari onartzen dioguna onar diezaiogun ere eskaldunberriari: Hego Euskal Herriko (edota Ipar Euskal Herriko) bi hizkuntzetan zuzen aritzeko ahalmena. Eta euskaldun zaharra baldin bazara, euskaldun berri baten itzul-gaitasuna edota idatz-ahalmena epaitzeko orduan, galde egiozu zeure buruari ea zeintzuk diren zuk zeuk erdaraz idatzi edota itzultzeko daukazunak. Eta orduan (erdaraz analfabetoa ez baldin bazara, behintzat), konturatu egingo zara ez dela beste munduko gauzarik, bi hizkuntzatan txukun aritzeko gai izatea.

Hala ere, ama hizkuntzak baditu propio beste zenbait bide eta baliabide, hain erraz ere eskuratzen ez direnak. Baina, akaso, goi mailako literaturaren mugetan sartzen hasiak gara, aipamen hori eginda. Hala eta guztiz ere, Joseph Conrad, esaterako, hortxe dago: hogeitaz urterekin ingelesez fitsik ez zekien ingeles literaturak eman duen idazle on eta oparoenetakoa.

Babel dorrean bizi garenok ez dauzkagu gauzak oso garbi... Batzuetan, egia ikusten dugu dirdirka, garbi baino garbiago; eta segituan, berriro ere ilunpetan gara erortzen... Babel dorreak gauez adreilu batzuk han eta hemen jartzen dihardu...

Bera bakarrik. Dorrea zinez bizirik balego bezala, eta bere kautan ariko balitz bezala... Dorrearen aldeko alferrikako ahaleginak... Tira, hobe dut isiltzea, zeren poesia idazteko, hau ez da leku egokia.

Sindikatuak deituta, pare bat hilabete igaro dute greban eraikuntza-sektoreko langileak. Eta Patronalarekin akordiorik erdietsi izan ez balute, grebak aurrera segituko zukeen. Niri zera etorri zait burura: “Euskaldunon Egunkaria” itxi zutenean, zenbateko greba egin genuen...? Uste dut lau orduko “greba sinbolikoa” egin genuela. Ulertzen al duzue orain Euskaldunon Egunkaria zergatik itxi ziguten eta Iñaki Uriak zergatik jarraitzen duen kartzelan? “Herri sinbolikoa” izateak bere alde txarrak ditu, inondik ere.

Egia esan, Euskaldunon Egunkariaren kasuan, zera baino ez dugu frogatu: ez dakigula borrokatzen, herri kobardea garela. Beraz, merezi duguna baino ez daukagu.

Gezurra badirudi ere, gaur arte (2004. urtera arte) Xabier Montoia nor zen ez nekien. Hobeto esanda: banekien idazten zuela, Susakoen

“taldekoa” zela, eta abar. Baina haren libururik ez neukan artean ere irakurrita. Lehengo egunean, haren bi liburu aukeratu nituen Astigarragako liburutegian: “Plastikozko loreak erregearentzat” eta “Emakume biboteduna”. Biekin sorpresa polita hartu dut, eta batez ere bigarrenarekin. Benetako idazlea izateaz gain, harekin oso erraz identifikatu naiz. Aspaldiko partez, ongi pasatu dut euskarazko liburu bat irakurtzen. Eta esan bezala, bere “munduarioarekin” erraz identifikatu naiz. Irratian, hark berak grabatu eta ateratako kanta bat entzun nuen, ona baino kaxkarra iruditu zitzaidana. Baina idazle bezala horrek bere xarma handiagotu baino ez du egin (bide arriskutsua izan arren). “Emakume Biboteduna” liburuan aurrera egin ahala, konturatu naiz maitaleei buruzko gaia ardatz daukaten ipuinak errepikatu egiten direla; dena den, ipuin horietako bakoitzean alderdi desberdinak azaltzen dira. Zera esan nahi dut, berez topikoa izan arren, gaiari probetxua ateratzen badakiela. Eta hori ongi dago, noski.

Batzuetan iruditzen zait idazle bezala “kito” nagoela. Eta neurri batean, hala da. Baina, oporrak iristen direnean, nahikoa da betiko lanari hiruzpalau egunez uztea, eta berriro pizten zait idazteko eta irakurtzeko gogo. Kontua da: nola atera lakio honetatik? Zer egin, lanaren armiarmasaretik eskapatzeko? Eta ez dakit; ez zait ezertxo

ere bururatzen. Ez dago erantzunik. Xake mateak bere horretan dirau. Oraingoz...

Dena den, zertan nabarmendu naiz ni “euskal borroka” delakoari dagokionez? Esan nahi dut: nor arraio naiz ni inori lezioak emateko? Ez dakit, ba. Batzuek hala ere borrokaren bidea aukeratu dute. Baina ez zaie nabaritzen. Horixe baino ez dut esan nahi. Horren aldekoa bazara, erakustazu. Bestela, utz gaitzazu bakean. Kopetaraino nago ekintza sinboliko batetik bestera ibiltzen diren politikero eta militante merkeez. Horretarako, hobe nik egiten dudana: etxean gelditu.

Talde orotatik kanpo nabarmentzen diren gizasemeak ditut gogokoenik. Gainerakoak, artaldekoak. Denak.

“Hauxe al da feminismo berria: gizonari etxea kentzea, soldataren parte handi bat kentzea, seme-alabak kentzea, eta azkenean senar ohia marjinalitatera bultzatzea?”. Horixe pentsatu dut B.H.k 200***ko datan eta *** egunkarian argitara eman duen gutuna irakurri dudanean. Bestalde, nik ez dakit zer eskatzen zaien epaileei epaile izateko,

baina badirudi ezinbesteko baldintzetako bat dela erabaki harrigarriak hartzeko gai izatea. Guztiau, ordea, iceberg-aren punta baino ez delakoan nago. Tratu txarrekin gertatzen zen bezala, dibortzio eta bereizketa kasuen harira gizonei epaitegietan ematen zaien tratua iraingarria, umiliagarria eta zeharo bidegabea da. Honek ezin ezer onik ekarri. Eta bada garaia orain arte ezkutuan iraun duena argitara ateratzeko. Bereizketa kasu normaletan, irtenbide bakarra dago: ondasunak %50ean partekatzea, bereizketaz geroztik nor bere soldataz arduratzea, eta seme-alabak %50ean ere partekatzea. Duintasuna zer den badakiten gizon-emakumeek horixe izan behar lukete jarraibide bakar. Emakundek nori emango dio hurrengo urtean bere urteroko “latorrizko” edo dena-delako saria? B.H.ri...? Iruditzen zait emakume batzuk femitxista higuingarriak izaten amaitu direla (“y a mucha honra”, esango digu txula batek baino gehiagok). Nik, ordea, garbi daukat: matxismoa eta femitxismoa kaka beraren bi aldeak baino ez dira, eta kito. Edonola ere, emakume askok dibortzio-kontuetan hartzen duten jarrera ikusita, garbi ere badaukat emakume horiek nori emango lioketen botoa hauteskundeetan: eskuindarrei... euren jokabidearekin ezin argiago erakusten baitigute eskuineko ideologiarik ustelduen eta atzerakoienaren aldeko direla (azalezko zenbait kontutan, oso progreak; baina sakoneko beste zenbait gaitan, Blas Piñarren ildokoak edo). Ez dakit, baina pentsatzen hasi beharko genuke alderdi politikoei bizkar ematea, gizonon guztiz kalterakoa

den egoera hau konpontzeko proposamen eta neurri garbiak euren egitarau politikoen barruan jasoak ez diren bitartean, behintzat. Edonola ere, bada garaia egoera hori bizi duten gizonak antola daitezen eta kalean zein komunikabideetan euren egoera, amorrua eta aldarrikapenak plazaratzen has daitezen (orain arte baino adore handixeagoarekin). Ni ezkondata nago, bi seme-alaba ditut eta ondo konpontzen naiz nire familiarekin, baina hala eta guztiz ere ez litzaidake gustatuko B.H.ri gertatu zaiona niri ere egunen batean gertatzea. Beraz, elkartasuna da lerro hauek idaztera bultzatu nauena. Eta elkartasuna da, hain zuzen, emakumeek behin eta berriro eskatzen digutena, guri, gizonoi, dauzkaten arazo larriak (matxismoari lotuak) nola edo hala denon artean gainditzeko. Eta oso ondo iruditzen zait. Baina eskatzen duenak jakin beharko luke ematen ere. Elkartasuna beretzat gordetzen duena ez dadila joan besteengana elkartasun eske. Bestalde, irrigarria ere iruditzen zait Hondarribiko alardeari hainbesteko oihartzuna ematea, eta gizon separatu askori gertatzen zaienari ia kasurik bat ere ez egitea, azken batean jokoan dagoena ez da desfile batean parte hartzea ala ez, baizik eta gizon bat (pertsona bat) kale gorrian geratzea ala ez. Hor ere agerian jartzen da emakume feminista batzuen *sentiberatasuna* zein den, sakoneko gai batzuei dagokienez. Egia esatera, batzuek ezin dute euren gorrotoa ezkutarazi. Gorrotoa, bai. Emakumeari dio gorrotoa gizon matxistak; eta gizonari dio gorrotoa emakume femitxistak. Gorroto-kontua da. Etor daitezela psikoanalistak gorroto horren nondik

norakoak azaltzera (edota justifikatzera, psikoanalista “feminista zorrotza” izanez gero). Ez gaitezen engaina, ordea: bizkarroiak. Bai. Horra zer diren emakume-klase horretakoak (senar ohia miseria gorrian uztean espezializatu diren horiek): bizkarroi galantak. Erdaraz, “gorronas” esaten dena. Eta mesedez, ez hasi orain tratu txarren biktimak aipatzen eta abar. Horixe da eskuin-muturreko gobernuek egiten dutena terrorismoarekin: beraien bortizkeria ezkutatzeko, alde bateko biktimak soilik ekarri hizpidera. Trikimailu zaharra da. Denok ezaguna. Ziria sartu nahian dabilenak bila dezala metodo berriren bat. Eta bukatzeko, galdera pare bat: lehenik, non ote daude sartuta garaian garaiko gure arartekoak, noiz hitz egin dute gizon dibortziatu askoren egoera larriari buruz? (ongi dago Alarde mistokoen eskubideak defendatzea –ni neu ere ez naiz eskubide horien aurkakoa); eta bigarrenik, nor arduratuko da B.H.ri eta beste hainbat gizoni egin dieten bidegabekeria zuzentzeaz? “Entzun eta ixil, baiezko biribil” dio esaera zaharrak, arrazoi nahikoz. Tira, izan gaitezen solidarioak, batzuk eta besteak. Denok.

Ezin dut idatzi. Burua kutsatuta daukat.

No puedo escribir. Tengo contaminada la mente.

Jende mixerableari den-dena eman behar zaio bandejan, baita mendeku koldar eta barregarriak hartzeko aukera ere.

Gizaseme batek lortu behar duen lehen gauza hauxe da: bere seme-alabek bera maitatzea. Zeren beraren seme-alabek ez badute maite, nork maiteko du...? Gizakiaren porrota neurtzeko, horrelako erregelak erabiltzen ditut nik.

Bizitzea urruntzea da, etengabe eta ezinbestez.

Oihanaren legea: indartsuenak ahulena irabaztea. Edota itsasoarena: arrain handiak arrain txikia jatea. Baina, hala ere, bai oihanean bai itsasoan denetik dago: animalia indartsuak eta animalia ahulak; arrain handiak eta arrain txiki-txikiak. Ezer ez da desagertzen, zeren bataren desagertpenak bestearen agerpena ekartzen baitu berekin. Hori ere oihanaren edota itsasoaren legea da. Gizakiontzat ere segur aski balioko duena, neurri handi-txiki batean.

Den-dena dago heriotzaz beteta; eta leku guztietan, heriotza baino ez dago. Ez, ez naiz Irakeko gerraz. Ez naiz inongo gerraz ari. Soil-soilik eguneroko bizitza baketsuari buruz ari naiz. Barka nire ikuspegi ezkorragatik. Baina, zer nahi duzue? Ikusten dudana baino ez dut esaten.

Ni munduko gizonik jakintsuena naiz, badakidalako zein den politikarik onena, ideologiarik onena eta alderdi politikorik onena: ankerkeria-mota guztiak onartzen ez dituen. Bai, ni munduko gizonik jakintsuena naiz. Eta ni bezala pentsatzen duten gizon-emakumeak munduko gizon-emakumerik jakintsuenak dira. Egunen batean, Lurra gurea izango da, gizon-emakumerik jakintsuenena; ala ez da inorena izango.

Orain dela gutxi, honako mezua bidali nuen
*** elkartera:

Heldu zait postaz zuek bidalitako triptikoa, honako izenburua duena:

*V. Kultur Jardunaldiak
Aniztasun eta Kulturako Hiriak*

Nik egina dut esaldi horren itzulpena ****.doc* izeneko artxiboan (zuek niri bidalitakoan), eta honela itzuli nizuen:

*V. Kultur Jardunaldiak
Dibertsitatea eta Kultur Hiriak*

Ez dakit, ba. Belarrian oso gogorra egiten zait "Aniztasun eta Kulturako Hiriak" irakurtzea, hau da, "aniztasun" hitzak "-a" erantsita izan beharko luke, honela: "Aniztasuna eta Kulturako Hiriak". Horrez gain, hobe da "dibertsitate" hitza erabiltzea "aniztasun" hitzaren orde. Eta hobe, ere bai, "kultur hiriak" "kulturako hiriak"en orde. Dena den, akatsik handiena, benetan atentzioa deitzen duena, hauxe: "aniztasun" hitza artikulurik gabe azaltzea.

Sekulakoak gertatzen dira munduan. Iraken, Palestinan eta hainbat eta hainbat tokitan egundoko sarraskiak egiten dira, gure begirada ezinduaren aurrean, edota are okerragoa dena, gure begirada indiferentearen aurrean. Nolatan ez dira gertatuko, beraz, geronen herrialdeetan tratu txarrak eta emakumeen aurkako bortizkeriak, sarraskirik lazgarrienak ikusita ere hatz bakar bat ere mugitzera ausartzen ez bagara? Sarraskirik nazkagarrienak irentsi egiten ditugu ezer izango ez balira bezala. Nolatan konponduko dugu emakumeen arazo hau horrelako indarkeriaren

aurrean sor eta gor jotzen badugu? Hitz hauek ez dira emakumeen aurkako indarkeria edo tratatu txarren justifikaziorik, noski. Zoritxarrez, hori baino askoz txarragoa da. Gaur, esaterako, Israelek hiru pertsona zibil hil ditu, etxe barruan zeudela haien etxea leherrarazita. Albisteak irakurri dugu teletestuetan. Albisteak irakurri dugu prentsan. Albisteak entzun dugu irrati guztietan. Albisteak ikusi dugu telebista guztietan. Denok etxean geratu gara ordea. Espainiako, Euskal Herriko, Kataluniako emakumeak eta gizonak ez dira kalera atera suminduta, halako krimen baten aurrean euren protesta eta amorrua erakustera. Beraz, nolatan aterako gara kalera emakume bat jipoitu dutelako edota bortxatu dutelako, izugarri dramatikoak diren ekintzen aurrean mutu eta itsu jotzen badugu? Gizahilketarik nazkagarrien aurrean sentiberatasunik, elkertasunik erakusteko gai ez bagara, nolatan erakutsiko diogu sentiberatasuna, elkertasuna, jipoia hartu duen emakume bati? Gauza guztietarako erantzunak dituztenek erantzun diezadate. Bien bitartean, nik gizon eta emakumeen hipokresia (neurea barne) salatzen jarraituko dut.

Egunen batean aberatsa izateko itxaropena dauka pobreak. Aberatsa, ordea, beldur da egunen batean pobre ez ote duen amaituko. Beraz, bata itxaropena dauka; eta besteak, beldurra. Bietako nork dauka gehiago? Inork ez. Biek daukate gauza

berbera. Itxaropena beldur mota bat baita; eta itxaropena, beste beldur mota bat. Poeta handi hark zioen bezala: "...ibai guztiak doaz itsasora hiltzera".

Lehengo egunean, mezu hau bidali nuen Euskal idazleen Bulegora:

"Telefonoz hitz egin bezala, nire bibliografian aldaketatxo bat egitea eskatu nahi nizuke. "Autorea editore" jartzen den lekuan, "Marjinalia Bilduma" jartzea eskatu nahi nizuke, ondoan agertzen den urtea bere horretan utzita.

Nik uste dut Marjinalia Bildumak bere bidea egin duela, benetako argitaletxea izan ez arren. Milaka lagunek ezagutzen dute eta milaka ale banatu ditut sarean, ezer galdu ezer irabazi gabe, baina funtsezkoena erdietsiz: liburuak zabaldu eta ezagutzera ematea.

Gainera, ospe handiko argitaletxeetan ere badira editore eta aldi berean idazle direnak, eta liburu bat euren argitaletxean plazaratzen dutenean, inork ez du esaten "editorea autore" edota "autorea editore"...

"Autorea editore", nire ustez, liburu bat edo beste bere kabuz argitaratzen duena da. Baina Marjinalia Bilduman ia 100 artxibo argitaratzeaz

gain, zortzi urtez etenik gabe izan dudan presentzia ere nik uste dut kontuan hartzekoa dela.”

“Bizkarrean tatuaturiko mapak”, Harkaitz Cano (Elkarlanean, 1998). Orain dela urte asko, Harkaitz Canoren “Pavlov-en txakurra” ipuina irakurri nuen. Ez zitzaidan bat ere gustatu. Ez nuen ulertu komunikabide zenbaitetan (edota geneukan eta daukagun ia bakarrean) zer dela-eta egin zioten horrelako oihartzuna, ipuina gatzik gabea eta mamirik gabea baitzen –nire iritzian, behintzat–. Egileari ez nion berriro kasu handirik egin. Baina horra lehengo egunean nire herriko kultur etxeko liburutegian Harkaitz Canoren liburu bat topatu nuela, eta sinopsia eta pasarte batzuk irakurrita, ba liburuak akuilatu ninduen, eta etxera eramane. Aurkikuntza polita izan da, Harkaitz Canori buruz neukan ideia zeharo bestelakotu didalako. “Bizkarrean tatuaturiko mapak” liburua (zeinak Bradbury-ren liburu baten izenburua dakarkidan gogora) zinez entretenigarria eta polita da; areago, nik esango nuke liburu hau edozein hizkuntzatan irakurrita ere, irakurlea entretenitzeko gai izango litzatekeela. Eta hori esatea asko esatea da. Ez dut uste liburu “unibertsala” denik; baina munduko edozein hizkuntzatan duina eta atsegina izango litzateke. Ez dut Harkaitz Cano ezagutzen; berak ni ere ez. Beraz, biok elkarrekin haserre egoteko arrazoi handirik ez genuen. Hala ere, liburu honek

egile honekin nolabait adiskidetu egin nauela aitortu beharra daukat, bai eta atseginez aitortu ere.

Ez dakit Singer idazle judua ezagutzen ote duzuen. Nik orain dela gutxi arte ideiarik ez bazenik. Kontua da Koro Navarrok egile honen liburu bat prestatu duela euskaraz, emaitza –ohi bezala– ederrekin. Liburu hau ere herriko liburutegitik atera nuen. Zortzi kontakizun-edo ziren, eta pentsatu nuen: “Tira, baten bat irakurriko diat”. *Baten-bat?* Denak ere irentsi nituen azkenean. Hori bai, ordenari jarraitu gabe, orri-multzoan atzera-aurrera eginez. Eta beti pentsaturik: “Tira, hau gustuko ez badut, ez dut gehiago irakurriko”. Baina... denak gogoko nituen, eta beraz, denak irakurri nituen. Literatura unibertsala gurerak erakartzeko EIZIEk bultzaturiko bilduman agertu da Singerren liburua. Ikusten denez, egileak deskubritzeko ere balio dezake bilduma polit bezain garrantzitsu honek.

Lehengo egunean, editoreak biografia txiki bat eskatu zidan erdaraz argitaratzera gindoazen liburu baterako. Nik egun bihurria-edo nuenez, ondoko testua idatzi nuen. Zorionez, hobeto pentsatu eta horren orde bestea bat bidali nion.

«Xabier Galarreta (Donostia, 1961) hace ya años que lleva dando vueltas por ningún sitio sin encontrar la salida. Tal vez no ha buscado mucho, tal vez ha buscado demasiado. Terminados sus estudios de bachillerato y COU en el nocturno de Bidebieta, anduvo matriculado en varias carreras universitarias sin llegar a finalizar ninguna de ellas. Hoy día, parece que ha sentado la cabeza, pero puede que solo sea un espejismo, porque al menos, aún continúa publicando y escribiendo y leyendo poesía. Por problemas de salud dejó de beber y fumar porros, y el otro día incluso dejó de respirar durante un buen rato. Es tan sensato y serio, que todas las madres desearían que sus hijos fuesen algún día como él. Pobrecillas, si supieran la verdad...».

Euskaraz egiten dugunok euskaldunak gara. Eta denok badakigu euskaldun hitzaren jatorri etimologikoa zein den: euskara + dun. Beraz, euskaldunok euskaradunak gara, euskaraz mintzatzen garelako. Baina, euskaraz ez ezik, gazteleraz eta frantsesez ere mintzatzen gara euskaldun guztiok, euskaldun elebakarrak museoetan bakarrik existitzen baitira. Orduan, “española” egiten dugunok zer gara, arau etimologiko bera aplikatuz gero: español + dun...? Hizkuntzak egiten gaitu. Gazteleraz badakigu. Gazteleraren kultura, neurri batean (neurri handi batean), gure egin dugu. Beraz, erdaraz

badakigunez, euskaldunak izateaz gain, erdaldunak ere bagarela aitortu beharrean gara. Ni Alderdi Popularrekoa banintz, nire hitzek konnotazio jakina izango lukete. Baina Ezker Abertzalea beti gogoko izan dudanez, uste izatekoa da nire hitzek beste konnotazio bat izango dutela, kontu berberaz ari bagara ere. Dena den, ni nago ez gintuzkeela beldurrik eman beharko gazteleradunak edota frantsesdunak izateak, hizkuntza bakoitzak ate bat zabaltzen baitigu, hizkuntzak aberastasun-iturri baino ez direnez. Aberastasun hori zergatik pobretzen dugun galdetu beharko genioke gure buruari. Beharbada, gizaseme pobreak gara espirituz, eta horregatik, ukitzen dugun urre guztia latoi bihurtzen dugu. Hala bada, izan dadila gure zoritxarrerako.

Bitxia da, G. Arestiren famili argazki bat ikusi dut: bera, bere andrea eta alabetako bat (txiki-txikia). Eta orduan, Arestiren lekuaz ohartu naiz, ezin garbiago ulertu dut dena: nire gurasoen belaunaldikoa zen. Jainko maitea! Datu guztiak nituen lehendik: nor zen, noiz jaio zen, noiz argitaratu zituen bere lanak, noiz hil zen... Dendena nekien eta aldi berean ez nekien ezer. Baina argazkia ikusi dudanean, nire gurasoak, nire gurasoen anai-arrebak, lagunak, osaba-izebak... denak etorri zaizkit gogora. Eta orduan, Gabriel Arestiren lekua –denboran betetzen zuen/duen

lekua– ezin garbiago ulertu dut. Den-dena ulertu dut.

Munduan existitu diren gizaki guzti-guztien burmuinak batuko bagenitu, hortik jainkoren bat aterako litzateke? Eta egia balitz gizakiak betiko existituko direla, eta beraz, orain artean existitu diren gizakiei gehituko bagenizkie gaur existitzen direnak eta eternidaderaino (¿) existituko ere direnak, hortik zer aterako litzateke? “Jainkoa” aterako litzateke? Nor, zer edo zein da “giza barreiatze” hori batzeko gai dena –baldin-eta inor, ezer edo ezein bada?–. Erraza da korapiloak egitea, baina askatzea...

“****”, escrito por el escritor ***. Me ha sorprendido su euskara, la vitalidad, la fuerza y el profundo instinto lingüístico de este escritor cuasi-desconocido en el mundo de la “literatura” (si es que su libro pertenece a este ámbito) y más conocido en el mundillo revistero-informal-kontrakultural de los últimos años, que ha venido a abrir un ámbito inexistente hasta ahora en la cultura vasca aunque archiconocido y “quemado” ya en otros ambientes geográfico-culturales (“Ajoblanco”, sin ir más lejos, que ya existía cuando yo era un niño), y me refiero, cómo no, a Ostiela. Hasta aquí, todo muy bien. El libro se lo

recomiendo a cualquiera (que sepa leer en euskara como es debido). Eso, en cuanto a la forma. En cuanto al contenido, ahí ya no lo veo tan claro. No es literatura, no es tampoco ensayo en un sentido puro o literal, al menos. Se acerca más al estilo periodístico-literario-contestatorio de Ostiela (de hecho muchos escritos –¿todos?– los publicó previamente en Ostiela), aunque tiende a fluctuar un poco por todos lados y al mismo tiempo por ningún sitio. Tal vez fuera ése el objetivo consciente/inconsciente del autor. ¿Qué no me gusta? Tal vez la prepotencia del autor, su afición al “extremo duro”, una postura “heavy-intelectual” ante todo lo que le rodea (y que interactúa directamente con el euskara, cosa que está bien) pero que acaba también en la transgresión gratuita o, aún peor, en la ofensa ajena-enajena-nacional. Parece un poteador-exaltado-literario. Sólo admite su propia realidad lingüística. La realidad que, por una razón u otra, se sale de su en absoluto despreciable munduario lingüístico, la pisotea, la trata con desprecio y no duda en humillarla, sin darse cuenta (o dándose cuenta) que en realidad no trata únicamente acerca de un idioma, sino que está tratando de la gente que hace ese idioma, y que lo vive –sea con un punto antinatural o sin él–. Está también su desesperación, y por partida doble: a la hora de dar y a la hora de recibir. A la hora de dar, porque le cuesta encontrar euskaldunes con los que lingüísticamente hablando se vaya encontrar “como en casa”; y por otro lado, a muchos otros euskaldunes les va a resultar difícil sentirse como

en casa con él, ya que el listón lingüístico que él pone –unido a su soberbia de tintes alcohólico-épicas– les va a resultar demasiado alto (cosa que a mí no me parece mal, pero bueno... eso es problema de cada euskaldún). Resultado: rabia, frustración, mala hostia (Ostiela), sensación de judío errante y del último mohicano... En fin, más de lo mismo, porque como suele decirse, nada nuevo hay bajo el sol. Me recuerda incluso a otro gran euskaldún, Patziku Perurena, éste también desterrado a los confines de Goizueta/Leitza y atrapado en el cada vez más reducido espacio de un mapa lingüístico que hace ya siglos comenzó a venirse abajo, especialmente en lo que se refiere al euskaldún prototipo (dicho sea en un sentido lingüístico). Patziku Perurena o ***, ambos como pez en el agua cuando hablan, escriben, viven y se expresan en euskara, pero que no pueden tampoco librarse de la maldición que persigue al pueblo vasco y que pesa sobre todos aquellos que han decidido continuar siendo euskaldunes. Un libro que por un lado te lo recomiendo encarecidamente, pero que por otro lado me produce la misma sensación que tantas veces he tenido: si no lo hubiera leído, no me habría perdido nada. O bien sino, “quiero y no puedo”. Porque hay muchas maneras de llegar y de no llegar a ningún sitio. Y creo que esto vale para cualquiera. Tal vez (¿?) lo importante sea hacer ruido (y ya habrá tiempo para discutir acerca de lo que es y no es música). Hay cosas, eso sí, que uno ya no sabe por dónde “pillarlas”: la reivindicación de la taberna como

“punto de reunión”, que si en las fiestas del pueblo ya no nos damos de hostias, que si el del pueblo es más/menos tonto/sabio que el de la ciudad, citas rancias de escritores rancios (meros modelos lingüísticos de otra época...). En fin, ese tufillo que va dejando la cultura que más que vivir, coletea. Y de eso no se libra nadie: ni yo, ni ***, ni Dios (si es que aún habla en euskara). Hay también otro aspecto que merece la pena resaltar: una retórica tan trabajada y castiza, culta incluso, pero que, sin embargo, no está al servicio de nada, porque realmente no está al servicio de una idea, de una fantasía (cuento, novela...)... ¿Y en qué queda la retórica supuestamente literaria si no está al servicio de un objetivo literario...? “Cháchara” literaria...? ¿Estamos ante un nuevo género o se trata tal vez de un anti-género...? En cualquier caso no me gusta la gente que envenena, difama y lleva la ciñaza a su propio pueblo. Sólo un “etxekalte” actúa de esa manera (y con eso me refiero a la pozoña lanzada contra Gabriel Aresti, que por cierto no tenía tan buen euskara come el de ***, pero sin embargo le daba cien mil vueltas como literato –claro que, para aprender algo, hace falta un poco de humildad, y creo que a *** no le sobra–). Por otro lado, la prosa recogida en este libro tiene también un claro sabor “decimonónico”, es decir, ya sabéis cómo se expresaban en castellano en el siglo XIX en la época de Galdós, Zorita & Company. Dicho de otra manera, que es una prosa con mucho pico pero con muy poco fondo. Berborrea de alto copete, en definitiva. En

fin, supongo que ésa es la diferencia de los cafés de París a las tabernas nocturnas de una parte vieja entregada al botellón y al trasiego. De todas maneras, reconozco que realmente me ha sorprendido el euskara de ***, es un modelo lingüístico que hasta ahora solamente lo he encontrado en un ámbito determinado de la cultura vasca, en el ámbito de la traducción. Y de la mano además de traductores muy-muy especiales, como Xabier Olarra o Juan Garzia. Bejondeiola.

“Nekazaritza hiztegia”, Eusko Jaurlaritzak 1995 urtean argitaratua. Oro har, hiztegia ongi dago. Nik Sustraia programaren itzulpenetan askotan erabiltzen dut. Eta esan bezala, fidatzeko moduko hiztegia da. Hori bai, iratxo bihurriak nonahi ibiltzen omen dira, baita liburu honetan ere. “Arar (arar la tierra)”, “goldatu” hitzak bilatzen badituzue, hiztegi honetan inon ere ez dituzue topatu, ez gaztelaniazko atalean ez euskarazkoan. Horren hitz oinarritzkoa izanik, bitxia da jasota ez egotea, ezta?

Nire aitaren fusila, Hiner Saleem egilearena, Juan Kruz Igerabidek itzulia eta Alberdanian argitaratua. Liburu ederra, baina batez ere, hunkigarria. Hasi baino ez dut egin eta aitortu behar dut lehen orritik hunkitu nauela. Ez zait

gauza bera gertatu “Ahardikeriak” liburuarekin, hau ere Alberdanian argitaratua, Marie Darrieussecq idazle frantsesarena da. Ez dakit. Fantasiosoegia iruditu zait. Nik fantasia maite dut, baina fantasiak oinarri batzuk izan behar ditu errealitatean, den-dena sinbolismo hutsean eroriko ez bada. Merezi du irakurtzea, hori bai. Eta horrek esan nahi du liburuari “zerbait” aurkitu diodala. Bitxia da, baina... “bitxiegia” aldi berean. Ez dago gaizki, baina ezta ondoegi ere. Erdibidean utzi nau. Nik literatura mota hori ez dut oso gogoko, xarmarik baduela onartzen badut ere.

Jon Benito. Oro har, gogoko ditut kazetari horren artikuluak. Badu oso kazeta-idazle gutxi daukatena. Berariaz, poeten berri emateko orduan, badirudi Círculo de Lectores-ek ateratako azken poesia-liburuen berri ere baduela. Nik bezala, orduan.

Ez naiz koipezalea. Ez dut ez zutaz ez beste inortaz ezertxo ere espero. Pentsatzen dudana esaten saiatzen naiz (beti posible ez bada ere —ezta komenigarria ere—). Zorionez, ni ez nabil politikan. Eta out-sider bat izateak, gezurra irudi arren, badu alde onik...

Errollda handi bat finkatu beharko genuke, euskalgintzak dituen premiei erantzun ahal izateko. Euskaren aldeko zerga-moduko bat ordaintzeko prest gaudenokin osatu beharko litzateke aipatutako errolda, eta diru horrekin, premia handian dauden kultur jardueri lagundu: ikastolei, irratiei... Batez ere, erakundeen aldetik inolako laguntzarik jasotzen ez duten edo laguntza zinez eskasak jasotzen dituzten ekimenetarantz bideratu beharko lirateke euskaltzaleon diruak eta sosak, eta Ipar Euskal Herria eta Nafarroa ditut bereziki gogoan. Uste dut hipokrita nazkagarri batzuen modura jokatzeko dugula: 4x4 autoak, milioi askoko etxeak, afariak jatetxe izen handikoetan, opor paradixiakoak... Gauza batzuetarako, erraz gastatzen ditugu milaka eta milaka euro. Baina gero, uzkur jokatzeko dugu, ikastola baten alde edo euskal irrati baten alde 50 euro eman behar ditugunean. Erakunde asko ez daude laguntzeko prest. Hori oso garbi dago Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian. Erakundeen laguntzak lortzeko, hauteskundeak irabazi behar dira, eta garbi dago herrialde horietan abertzaleok hori lortzetik zinez urrun gaudela. Beraz, sustatu nahi ditugun kultur ekimenak edo guk geuk ordaintzen ditugu edo bestela jai daukagu. Nik proposatu nahi nukeena zera da: diruz laguntzeko prest daudenekin errolda bat osatu, eta errolda horretan izen emandako pertsona bakoitzak prest egon behar du, behar denean, erantzuteko. Urtean, 50 euroko laguntza kide bakoitzeko. Ez dut uste asko denik, baina

errola horretan milaka pertsonak izena emango balute, urtean ekimen asko laguntzeko aukera izango genuke. Esaterako, $5.000 \text{ pertsonak} \times 50 \text{ €} = 250.000 \text{ euro}$. Halako kopuru batekin zerbait egin daiteke, esaterako, laguntza behar duen Ipar Euskal Herriko irati bati lagundu, edo Nafarroako ikastola bati gela eta instalazio berriak prestatu. Neurriak hartu beharko lirateke, eta oso neurri zorrotzak, gainera, diru guztiak kultur ekimenetara bideratuak direla ziurtatzeko. Beharrezkoa izanez gero, izen handiko erakundeen bitartez egin liteke: Foru Aldundi baten, Banketxe ospetsuren baten, aholkularitza juridiko edo ekonomiko baten tartez... Bestalde, euskalgintzan aktiboki aritzen diren guztiek eman beharko lukete izena errola horretan: euskal idazleak, euskal itzultzaileak, euskal kazetariak, maisu-andereñoak, euskal unibertsitateko eta lizeoetako irakasleak (batez ere irakasle euskaldunak eta euskaldunon adiskideak), euskaraz ikasten duten ikasle guztiak, bertsolariak, euskal erakundeetan lanean ari diren funtzionarioak, euskal alderdi politiko abertzaleetan diharduten politikari guztiak, jarraitzaileak, argitaldariak, euskal argitaletxeetako langile eta profesional guztiak, bikoiztaileak... Hau da, lehenik euskararekin harreman profesionala duten guztiak. Eta gero, hortik, poliki-poliki, herritar guzti-guztiengana iritsi beharko genuke, euskaltzaleak diren herritar guztiengana, eta errola horretan bere izena ematen duenak ogasuneko zergak ordaintzen dituen seriotasun berberarekin erantzun beharko luke urtero: 50 euro

herritar bakoitzeko, soil-soilik euskalgintzan inbertitzeko. Hori egiten ez duen herriak ez du pitorik balio, herri hipokrita da, borrokan dabilen itxura eman nahi du, baina finean, herri kaxkar, ahul eta tripaundi bat baino ez da. Eta gure herria hori baldin bada, desager dadila ahalik eta lasterrena.

Ikastolei laguntzeko antolatzen diren egun horietan energia eta diru piloa alferrikaltzen ditugula uste dut. Nafarroa oinez, esaterako, antolatzeko egin behar den ahalegina itzela da. Dirua aldez aurretik ere erabili behar da, eta eguraldi txarra ateraz gero, beharbada galerekin bukatu dute eguna. Bestalde, zenbat gastatu behar du Bizkaitik edo Gipuzkoatik egun horretan parte hartzera abiatzen den familiak? Demagun autobusa edo trena hartzen dutela, demagun lau kidek osatutako familia dela (bi gurasoak eta bi seme-alabak). Soil-soilik ospakizun-lekura iristeko, zenbat diru erabili behar izan dute? Eta berriro itzultzeko? Bada nire ustez diru gehiago aurreztuko genuke kontu-korrante batean diru-kopuru bat sartuta. Erosoagoa mundu guztiarentzat: antolatzailleentzat eta partehartzailleentzat. Eta berriro diot aurreko paragrafoan esan dudana: errolda bat osatu behar dugu, baina ez euskalgintzari laguntzeko, baizik-eta euskalgintza bideratzeko, euskalgintza guk nahi dugun lekura eramateko. Hauteskundeak lurralde guztietan

irabazteko gai ez garen artean, horrela jokatu beharra dago. Eta nahi duguna geure poltsikotik ordaintzea erabat zilegi eta naturala iruditzen zait.

“Pospolo kaxa bat bezala” Patxi Zubizarretaren ipuin-liburua ari naiz irakurtzen. Orain arte, ipuin bat bereziki gustatu zait, “Garbigailua” izenekoa. Generoaren eredugarria iruditu zait. Gero, badago beste bat, bereziki desatsegina eta gustu txarrekoa iruditu zaidana, “Kopa bat ardo merezi zuen ipuina” delakoa, hain justu. Ez dakit, ba: bere aita maingua masturbatzen duen semearen ipuin hau antiestetikaren estetikatik abiatzen diren kontakizun horietakoa dela iruditu zait. Zein da transgresio honen arrazoia? “Ea nor den transgresoreagoa?” Bestalde, mundu musulmana eszenategi duen ipuin honek mundu musulman horretan eragingo lukeen pitzadura animikoa ere etorri zait gogora. Ez dakit zergatik. Baina horixe etorri zait gogora. Hitz hauen haritik, atzo “Las invasiones bárbaras” filma ikusi nuen eta egia esan film hori baino gauza urratzaileagorik topatzea zaila izango litzaiguke. Aldiz, zeinen ona eta atsegina den, zeinen adimentsua eta intelektuala den, zeinen sentibera eta zorrotza, nola dakien beti irriño bat edo irri-karkaila bat sortarazten, egoerarik muturrekoenetan ere... Baina “Pospolo kaxa bat bezala” liburura itzuliz, nik gehiegizko “literatur aipamenak” antzeman dizkiot liburuari. Batzuetan, bazirudien aipamenak elkar lotu edo

erlazionatu eta horrekin ipuina-edo idatzi behar zuela; beste batzuetan pentsatu dut egilea zerbaiten beldur zela, eta horregatik egiten zituela etengabe idazle ospetsuen aipamenak, bat ere ongi iruditzen ez zaidana, zeren bakoitzak eman behar du emateko daukana, beldurrik gabe, pentsatu gabe ea besteen aipamenak bereak baino hobeak diren ala ez diren. Hori da, beraz, puntu ahul bat, guztiz asebate ez nauena. “Zazpi igarkizun eta bat gehiago” atala izan da agian gehien gustatu zaidana, atal luzea izanik nolabait tentsioari eusteko gai izan delako. Dena den, gehienbat asebate nauen estiloa edo ipuin-mota goian aipatukoa izan da, “Garbigailua” izenburukoa. Horrelako ipuinek ezer gutxi behar dute; argiak dira; hasietatik bukaerara arte dakite norantz doazen, zer helburu bete nahi duten, eta jakin ere badakite ustekabea irakurleari gordetzen, aldeztu aurretik iragarritako ustekabeak izan arren (zeren horiek ere politak baitira eta tradizio handikoak herrialde guztietako literaturetan). Oro har, liburuak merezi du, datxekion tonua apur bat melenga izan arren. Hamalau euroko inbertsioa, emaitzak itzultzen badakiena.

Asko argitaratzen baduzu, aurpegiratu egingo dizute, ez izan dudarik horretaz. Baina gutxi idazten baduzu, berdin-berdin gertatuko zaizu. Azken batean, norbaiten lana gaitzestea eta norbait zapaltzea ez baita hain desberdina; behintzat batetik bestera hari mehe bat baino ez dago. Ez gara orain

hasiko auzokoaren “borondate ona” eta mota horretako ergelkeriak aipatzen... Niri, dena den, erabat mixerablea iruditzen zaidana da euskaldun zintzo bat bazter uztea sen aldetik ahula izateagatik. Horrela jokatzeko duena gaizkile bat baino ez da; horrela jokatzeko duena Ezkutuko Polizian sartu beharko litzateke (bakoitzari berea).

Egia esan, oso jende gutxi ausartzen da benetan pentsatzen duena esatera. Hori egiten duenak larrutik ordaintzen du eta. Horretaz egon ziur. Dena den, nik zera esango dizuet: merezi du benetan pentsatzen duguna esatea, baldin-eta jakiten badugu benetan zer pentsatzen dugun. Zeren hori... beste kontu bat da!

“Itzalak”, Iban Zalduaren kontakizun-liburua, Ereinek argitaratua. Aspaldiko partez irakurri dudana libururik onena iruditu zait. Nabarmentzen ez den prosa bat erabiliz, munduario oso pertsonala eta “benetakoa” gauzatzea lortu du Iban Zalduak. Ipuinek amaieran beti gordetzen dute sorpresaren bat, eta ipuin onaren seinale da hori. J. Cortázarren distirak antzematea iruditu zait, zentzu on-onean esanda (denok gara irakurritakoaren isla, neurri batean edo bestean), baina egileak gure errealitatean, Euskadiko errealitatean finkatzen du bere munduaria. Benetakoa dela ematen duen

fantasia-mota bat da. Hori lortzea zaila da eta ipuin onaren seinale ere izaten da askotan.

*** idazlea agertu da lintxamenduei buruz hitz egiten. Gabriel Arestik jasan zuen lintxamendua ere ekarri digu gogora. Bera ere beldur da noizbait ez ote duen horixe bera jasan behar izango... Niri burura etorri zaidan galdera, ordea, hauxe izan da: eta zu, ***, ez al duzu inor lintxatu G. Aresti lintxatu zutenen arrazoi berberengatik? Mesedez, erantzuna ez eman niri, ezta komunikabideei ere. Inori ematekotan, zeuri.

“Galtzea metodo kontua da”, Santiago Ganboaren eleberria, Txalapartak argitaratua. Fiasko bat; fiasko hutsa. Itxaropena jarrita neukan liburu horretan. Zergatik? Bada izenburuagatik, ezin ederragoa da eta. Baina liburua irakurtzen hasi eta berehala konturatu naiz piperrik ere balio ez duela. “Eskaintza” irakurtzea nahikoa da zerbait arraroa somatzeko: Dickens eta Vargas Llosa... biak maila bereko idazleak izango balira bezala aipatuak..? Eta ondoko esaldiak zer “pintatzen du” hor: *Liburu hau oparitzeko zilegizko eta ezinezko nahiarekin*. Hori, hasteko. Gero, orrialde jakin batera iritsi naizenean, harira ez zetozen hainbat aipamen topatu ditut, denak idazle ospetsuenak, eta horietako bat hain zuzen idazle aparta batena. Eta

orduan ulertu dut: “Galtzea metodo kontua da” esaldi bikaina ez da Santiago Ganboarena, beste idazle ospetsu batena baizik. Ulertzen ez dudana da nolatan ausart daiteke inor beste idazle baten esaldia hartzera eta norberaren liburuko izenburu modura erabiltzera. Ezin dut ulertu edo... akaso ondoegi ulertzen dut. Liburu hau, egia baldin bada ongi saltzen dela, best-seller bat baino ez da. Liburu kaxkar bat alegia. Egileak ez dauka ezer eskaintzeko; beraz, nola ez zen gai bere kabuz izenburu on bat asmatzera, bada idazle on (benetako idazle) baten esaldia hartu du bere liburua izendatzeko. Eta funtzionatu egin dio, hasieran denok engainatu gaitu eta. Ziri ederra sartu digu, bai... baina hasieran bakarrik, zeren irakurtzen hasita berehala ohartzen zara liburuak berez ez duela piperrik ere balio. Gainera, Santiago Ganboaren liburua irakurtzen hasi baino lehentxeago, irakurrita neukan azken liburua “Zazpi Urkatuak” delakoa izateak gauza okerragotu baino ez du egin, “Zazpi Urkatuak” narrazio-liburua liburu zinez bikaina baita, literaturaren harribitxi bat, Andreiev idazle oso ona izan baitzen. Beraz, liburu bikain bat irakurtzen bukatu ondoren Ganboaren liburu ergela irakurtzen hastea... nola esango dizuet...? Paristik etxera itzultzea bezala izan da, nolabait esateko. Paradisutik infernura (purgatorioa esatea gehiegi litzateke eta). Tira, “Chao, el genio de Zuberoa” liburua aski kurioa iruditu zait, baina “Galtzea metodo kontua da” liburuaren truke ordaindu ditudan hogei euroetan pentsatzen dudana bakoitzean, neronen buruari

zaplastekoak ematen hasteko gogoia etortzen zait. Baina, galdetzen dut, eta zergatik argitaratu dute Txalapartakoek liburu hori...? Zein asmorekin...? Liburu handi bat zelakoan...? Best-seller batekin diru pixka bat irabaziko zutelakoan...? Lehenagatik izan dela ez dut pentsatu ere egin nahi.

Chao-ri dagokionez, “genio” baino gehiago, “*personaje*”, eta besterik ez. Erdaraz “es todo un personaje” esaten dena. Eta kito.

“Zazpi Urkatuak” liburura itzuliz, nik neure buruari galdetzen diot zera: eta zergatik ez dugu itzultzen idazle errusiar horren obra osoa? edota merezi duten ipuin eta kontakizun guztiak? Zergatik galdu indarrak liburu kaxkarrak argitaratuz, hortxe, geronen sudurraren aurrean daukagunean egile-eskubiderik ere ez daukan idazle handi bat euskaraz deskubritu gabe oraindik?

Ona al da alkoholaren edo beste drogaren baten eraginaren pean idaztea? Aspaldiko galdera honi mota guztietako erantzunak eman izan zaizkio. Hasteko, idazle bakoitzak bere obra asumitu behar duela uste dut. Baliteke norbaiten liburu batzuk (edo guztiak) alkoholaren eraginaren pean idatzita egotea. Eta orduan, hori horrela gertatu denez, idazleak ezin izango dio bere errealitateari bizkar eman (saiaitu ere ez du egin beharko horretan). Edonola ere, gauzak ez ditugu nahastu behar. Gauza bat idazle baten *eredugarritasun* pertsonala da, eta beste gauza bat da idazlearen obra. Pertsona bezala, putaseme handi bat izan daiteke, baina aldi berean, artista bezala (idazle, pintore edo zinegile bezala) munduko artistarik onena izan daiteke. Bi gauzak ez daude lotuta. Beraz, esatea “Bueno, Poe alkoholizatuta zegoen, eta horregatik ipuinak baino ezin izan zituen idatzi, oso ipuin onak idatzi bazituen ere”. Hori esatea ofizioa gaizki ezagutzea da. Poek ipuinak idazten zituen ipuinak idazteko baino balio izan ez zuelako. Ez zuen nobelaren beharrik (zorionez, Poek nahikoa eta sobera zuen bere ipuin miresgarriekin). Akaso norbaitek bere burua alderatu edota gaingitu nahi du Poerekin alderatuta, zeren “nola Poe mozkorti petoa baitzen eta horregatik ipuinak baino ez baitzituen idazten, orduan ni mozkortia ez izanik eta nobelagilea izanik, hark baino gehiago balio dut”. Tira, barregarria da batzuetan zer-nolako gauzak ematen diren aditzera hor nonbait. Bestalde, Rinbaud eta

Verlaine hor ditugu, bai eta poeta madarikatu guztiak ere (normalean ia poeta guztiak dira madarikatuak). Eta ipuinlariak ez ezik, nobelagileen artean ere topatzen ditugu ale ederrak: Hemingway, urrutira joan gabe, kosakoek (edo euskaldunek) baino gehiago edaten zuen, eta mila buelta ematen omen zizkion idazle *sobrio* bati baino gehiagori. Eta Bukowskiri buruz zer ez dugu esango ba...? Horrelako mila adibide jar genitzake. Egia esan, biografiarik zikinenak, *horrorosoenak*, baldarrenak eta lotsagarrienak askotan idazle, poeta eta oro har, artisten artean topatzen direla esatea ez dut uste ezer berririk deskubritzea denik. Baina gure euskal gizartea *moñoñoegia* da (gauza batzuetarako, behintzat); beraz, apaiz-mintegietatik ihes egindako idazle errespetagarrien lumak bilatzen jarraitzen dugu, Rousseau-ren ontasunezko errepublika aldarrikatu nahiko bagenu bezala... berrehun edo hirurehun urteko atzerapenarekin (gu, euskaldunok, beti atzerapenarekin iristen baikara leku guztietara, zeinen *modelnoak* garen adierazteko daukagun modurik ohikoena horixe baita: aldarrikatzea azken finean ez garena, sekula izan ez garena, sekula izango ez garena. Aitortu ere beharra dago: latza da milioika eta milioika aurkarien artean nor arraio garen jakitea.

DAGOKIONARI

Itzultzea beti ama-hizkuntzara. Hori da emaitzarik onenak ematen omen dituen prozedura. Bueno, bai baina.... Euskal Herrian bi edo hiru hizkuntzatan bizi gara. Batzuek txikitan ikasi dute hizkuntza horietakoren bat; eta heldutakoan, beste hizkuntzaren batean (edo bitan) jarraitu dute idazten eta bizitzen. Euskaldun askok badakite zertaz ari naizen. Eta idaztea diodanean, ez nagokio soil-soilik “literaturazko” ekintzari, idaztearekin zerikusia duten gainerako alor guztiei baizik.

***k idatzi duen azken liburu arrakastatsua, esaterako, hark berak jarri du erdaraz. “Bueno, euskaldun zaharra da. Hortaz, bera ez omen zen pertsonarik egokiena bere liburua erdaraz jartzeko”. Beti ama-hizkuntzara itzuli behar dela egia balitz.... Baina ni ez nago guztiz ados horrekin. ***ren kasua zehatz-mehatz zein den ez dakit (ez zait inporta ere). Beharbada, bi hizkuntzatan batera hazia da (ala ez). Zenbat hizkuntza zekien ba hiru urterekin...? (nik laurdena ere ez). Baina *** enpresak horixe galdetu dit galdategi batean. Eta hori ez da garrantzitsuena. Garrantzitsuena da gauzak bereiztea, zeren gauza bat hizkuntza bat ikastea da eta beste gauza bat, erabat diferentea, hizkuntza bat(ean) bizitzea.

Hemen, Hego Euskal Herrian, bi hizkuntzatan bizi garenez, erraz topatzen ditugu bi hizkuntzatan ondo eta dotore aritzen diren herritarrak, dela idazteko orduan dela hitz egiteko orduan dela... bizitzeko orduan. Gakoa hori da-eta: zure bigarren hizkuntza zer da, hizkuntza ikasia ala hizkuntza bizia? Nik, esaterako, ingelesa eta

frantsesa ikasi ditut, baina bi hizkuntza horietan ez dut inoiz bizitzeko behar handirik izan, eta ondorioz, bi hizkuntza horietan irakur badezaket ere, nahiko baldarra naiz frantsesez hitz egiten, eta ingelesez ia nire bizitza guztian ez dut hitzik egin. Beraz, ez etorri nigana galdetuz ea hiru urterekin euskaraz hitz egiten nuen, jakiteko itzultzaile duina naizen ala ez; etorri nigana galdetuz zenbat urte daramadan euskaraz bizitzen, euskara zenbat urtetan izan den nire arimaren zati, eta zenbat urtetan daramadan murgilduta euskaren kulturaren eta euskarak mugitzen duen kulturaren barruan. Euskal Herrian benetan sinesten baduzu, etorri nigana horrelako galderak egiten. Bestela, zoaz pikotara, esan argi eta garbi aprobetxategi bat zarela, ukitu arrazistak dituen diskurtso bat darabilzula eta ondorioz harroputz malapartatu bat zarela bai Euskal Herrirako bai zuretzako bai euskal jendearentzako, eta etxekalte bat besterik ez zarela, zeure herriaren berezitasunak ulertzeko gai ez izateagatik edota ulertu nahi ez izateagatik. Eta beste gauza bat: galdetu zeure buruari ea erdaraz *paleto* bat ote zaren, hiru urterekin euskaraz bakarrik zenekielako. Ni ziur nago erdaraz oso ongi egiten duten euskaldun askok hiru urtetik gora ikasi zutela erdaraz (heldutakoan, horietako askok). Eta bi hizkuntza horietako baten batean erosoago eta lasaiago eta hobeto aritzen badira ere (denak ez), gazteleraz edota frantsesez espainiar asko baino dotoreago egiten dutela inongo zalantzarik ez daukat. Jakina, euskaldunei (edo euskaldun batzuei) ez zaizkie gehitxo axola erdarazko aferak,

geure aferekin badugu nahikoa eta. Hala ere, batzuetan beste hizkuntzei begira jartzea ongi dago, konturatzearren haizeak berdin-berdin jotzen duela euskaraz, frantsesez edota ingelesez (hizkuntza bakoitzean ekintza hori modu jakin batez izendatu arren –azalduko zait orain baten bat filosofo metafisikoarena egiten, *mekaguen!*–). Beraz, nahi duenak egin ditzala nahi adina planta eta itxura, esanez, esaterako: “guretzat lan egiten duten itzultzaileak ama-hizkuntzara baino ez dute itzultzen” Bai, noski, eta zuk eta zuretzat lan egiten duten itzultzaileek zenbat testu pasatu dituzue euskaratik erdarara, jaiotzez euskaldun zaharrak izan arren?

Euskal Herrian bizi dugun egoera (eta normalizaziotik urrun dagoela gogoratzen dizuet, badaezpada ere baten bati ahaztu zaion) kontuan hartuta, eta hizkuntzek har dezaketen konplexutasuna eta bihurritasuna ere gogoan izanda, horrela hitz egitea errealitateari bizkar ematea baino ez da. Ala zuretzat bakarrik da onargarria *salbuespentxo* bat edo beste egitea? Gogora datorkit iaz gertatutako eskandalua, Ezker Abertzaleak Eusko Jaurlaritzan egindako itzulpen batzuen kalitate eskasa salatu zuenean. Nik ez dakit itzulpen hura nork edo nortzuek egin zuten (nik ez, behintzat; hori badakit). Baina lepoa jokatu nuke itzulpen horretan izen oneko itzulpen-zerbitzu bat egon zela (ama-hizkuntzara bakarrik lan egiten duten itzultzailez inguratzen diren horietakoren bat), bertako goi mailako funtzionarioek itzuli ez baldin bazuten (badakizue, “zuk balio duzu zuk ez

duzu balio” esaten diguten horietako goi mailako funtzionarioek (super-itzultzaileak!!!); eta zer esango didazue drogei buruzko *afficheak* zirela-eta piztutako eskandalu hartaz, duela lauzpabost urte gertatutakoaz? Nork egin zuen itzulpen hura? Euskaldun berri batek ala “hiru urterekin euskaraz baino ez zekien euskaldun zahar batek?”

Ez dakit nik neure buruari gezurrak esaten dizkiodan eta dagokidan errealitatea niri komeni zaidan neurrira egokitu nahian ote nabilen, baina oso ziur ere ez nago inguratzen zaizkidan “jakintsuetako asko” benetan ote diren gauzak diren bezala juzgatzeko gai edota euren buruak Euskal Herriaren errealitatearen erdian erretratatzeko eta kokatzeko ahalmena benetan ote duten. Ezagutu izan ditut harroputz linguistiko asko, jendaurrean hitzetan zuhur agertzen direnak... hanka sartzeko beldurrez. Eta nik jada ez ditut gehiago jasaten horrelako jarrerak. Gainera, hizkuntzei buruz egiten ditugun balorazioak beti egin ohi ditugu geure zilborrari begira, Euskal Herria izango balitz bezala elebitasuna ezagutzen duen munduko herrialde bakarra! Estatu Batuetan 60 milioi hispano bizi dira: zoazte horiengana “zuen ingeles-zerbitzuak eskaintzera”. Hemen ingelesa ikasi dugun gehienok zer dakigu ingelesez bizitzeari buruz? Zoazte integrazioa lortu duen hispano horietako batengana Euskadiko eskoletan (edo unibertsitatean) ikasi duzuen ingelesarekin zuen “itzulpen-zerbitzu tituluz ongi hornitu horiek” eskaintzera. Aurpegian bertan egingo dizuete barre. Zergatik? Lehen esan dudanagatik: gauza bat

delako hizkuntza bat ikastea eta beste gauza bat delako ikasitako hizkuntza batean bizitzea. Une bat iristen da non jada ez duzun gehiago ikasten; hizkuntza horretan bizitzera mugatzen zara, eta kito (hor hasten da etenik ez duen ikaskuntza, muga eta aurreiritzi guztiak hausten dituen ikaskuntza, Josep Conrad bat ingeles literaturaren tontorrera eraman zuena 20 urterekin ingelesez fitsik ez bazekien ere). Eta horri, jaun-andreok, normalizazioa deritzo. Eta hori da gizabanako bakoitzak bere lanarekin eta bere borondatearekin eta bere nahiarekin lor dezakeen normalizazio-mota bat, burokratek eta *mediokreek* aldarrikatzen duten “egunen-bateko-normalizazio-ahalguztiduna” baino mila bider hobe dena, nik herrietan ez baizik-eta gizabanakoengan sinesten dudalako. Gainera, nahiago dut gizabanakoetan sinestea, zeren pertsona bat tronpatzen denean, orduan bera bakarrik tronpatzen da, ez du transzendentziarik, baina herri oso bat tronpatzen denean, orduan kontuz lagunok, kontzentrazio-zelai batean amaitzeko arriskua dago! Ardiak ez ditut gustuko, ez baldin bada mendian (bost axola zait ardiak euskaraz edo espainieraz edo errusieraz egiten duten –euskaraz ere egiten dute, eta gutxien espero dugunengandik, egon ziur horretaz–).

Gainera, iruditzen zait gezurtiak garelara, ez garelara geure buruarekin zintzo jokatzeko ari. Erabat elebiduna den herri baten aurrean gaude eta hortxe ari gara galdetzen ea “hiru urterekin zein hizkuntzatan mintzatzen ginen”, jakiteko, emango dugun erantzunaren arabera, euskaldun *petoak*

garen ala ez, euskaldun *zintzoak* garen ala ez, *kalitateko* euskaldunak garen ala ez. Zer egin behar dugu ba hemendik aurrera, label bat zintzilikatu geure belarrietatik, mundu guztiak jakin dezan “kalitateko produktu euskaldun bat” garelara? Eta zer egingo dugu hiru urterekin euskaraz hitz egiten ez zutenekin? jarriko al diegu izar txuri bat lepotik zintzilik, kateatxo batekin, gure euskaldun zahar baldar eta erdi analfabetoek bereiz ditzaten?; edo hobeto izartxo ipurdian suz grabatuko diegu, kentzeko burutazioa izan ez dezaten? Eta itzultzaileak aipatu ditut, bai, baina zer esan behar dugu hiru urterekin euskaraz hitz egiten ez zuten euskal idazleei buruz, euskal irakasleei buruz, euskal argitaldariei buruz, euskal kazetariei buruz?; botako al ditugu Berriak-etik hiru urterekin euskaraz ez zekiten kazetariak, laguntzaileak, zuzentzaileak...? zer esan behar al diegu ba hiru urterekin euskaraz egiten ez zuten guraso euskaldunei: “e, aizue, ba al daukazue nahikoa kalitatea zuen seme-alabei euskaraz hitz egiteko? ez genuke nahi gure etorkizuneko hiztun produktu kalitatedunak izorratzea nahi! kontuz gero, merkantzia, salerosgaiak, izorratuko dizkiguzue!” Hasi beharko al dugu ba galde egiten hiru urterekin erdaraz egiten ez zekiten euskaldunei ea zertan ari diren erdarazko eskolak ematen, erdarazko liburuak idazten, erdarazko famili eta gizarte harremanak bilbatzen?

Horretarako, behintzat, ez kontatu nirekin. Ez naiz jeniala baina gero eta garbiago daukat nor naizen. Eta nazkatuta nago ikusten batzuek

darabilten harrokeria, azken finean patuak hizkuntza bat modu *erdi naturalean* lardaskatzeko dohaina eman dielako, dohain hori izanik azken batean denok daukaguna (hizkuntza batean zein bestean), eta gainera, guretzat, euskaldunontzat, inportanteena hauxe izanik: hemen gauzak aspalditik guztiz hankaz gora dabiltzala, eta badirela euskaldun zahar askori mila buelta ematen dioten euskaldun berriak, lehen azaldu dudan arrazoiagatik (eta ez naiz nekatuko errepikatzeaz): gakoa hizkuntza bizitzea (edo ez bizitzea) delako. Horregatik. Eta hori oraindik ez dakienak ez daki ezer bere herriaz, Ilargian bizi da, bere zilborrari begira bizi da, edota Euskal Herrian hain ugariak diren mozkorti intelektual horietako bat baino ez da, jada bereizten ez dituen errealitateak eta bere biharamun linguistiko higuigarri eta etengabeak. Bai, zoaz korrika babestera zure taldetxoaren barruan, tximino-taldean norbait ausartu da platano ustelak jaten jarraitzeari uko egitera eta egin beharra dago orain asanblada bat, gizatar aldrebestua bere tokian ipintzeko.

Hala ere, egia da, arau modura, goiko leloa guztiz zuzena da: ama-hizkuntzara itzultzen dute itzultzailerik gehienek. Normala: hizkuntza bat ikasten duten gehienek ez baitute ematen hurrenik eman beharreko bigarren urrats handia: ikasiriko hizkuntza bizitzea, hizkuntza hori erabiltzen den gizartearen zati izatera igarotzea. Horixe baita gauzak goitik behera aldatzen dituen: hizkuntza jakin bat erabiltzen den gizartearen zati izatera igarotzea. Hori da hizkuntza bat bizitzea; hori da

hizkuntza bat ikasteko prozedura mekanikoa gaitzen duen urratsa. Baina, a lagun... integrazioari buruz hasiak gara hitz egiten! Alemana ikasi duen itzultzaile suediarra suedierara itzuliko ditu bere lanak; baina Alemaniako gizartean guztiz integratuta bizi den itzultzaile suediarra baliteke bi hizkuntzatan zintzo lan egiteko gai izatea, “bere hizkuntzan” bestelako dohainak eta erraztasunak edukita ere.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar euskara ez dela bigarren hizkuntza edo hirugarren hizkuntza bat soilik; euskara, euskaldun batzuentzat behintzat, hori baino askoz gehiago da. Eta askoz gehiago denez, euskara ikasitako hizkuntza izatetik ama-hizkuntzaren pareko hizkuntza izatera heldu da euskaldun askoren kasuan. Ezagutzen dituzue euskaraz ez-jakin hutsak diren euskaldunak nahiz eta mota guztietako aukerak izan dituzten euskaraz ondo baino hobeto jantzita ibiltzeko, ezta? eta ama-hizkuntza jaso bezalaxe “gorde duten” euskaldun petralak ere bai, ezta? Intelektualak, hiritarrak, gizarte-maila onekoak (ez naiz ari kultur maila apaleko euskaldun zaharrei buruz –horietako asko ere hutsalak izan arren hizkuntzaren eta euskal kulturaren ikuspegietatik). Bueno, bada horiek dira euskararen fartsan buru-belarri murgildu direnak, hizkuntza ia-ia hiltegiara eraman duten kalekumeak; horiek dira erdarara pasatu direnak “arazoak saihesteko”; horiek dira hitzaldien hasieran “egun on” esan eta segituan erdaraz hasten direnak. Eta horien artean hiru urterekin euskaraz baino ez zekitenak ere topatzen ditugu, ez izan dudarik.

Baina, mesedez, ez gaitezen has portzentajeak ateratzen orain. Ni gainera, ez naiz ikerlaria, ezta hizkuntzalaria ere. Ez dut estatistikarik behar bizitzeko. Nire hizkuntzekin nahikoa dut-eta (zeren nik hizkuntza bat baino gehiago ditut, eta harro nago horretaz).

Dena den, bukatzeko, ez dut errudunik nahi, ez diot inori ezer aurpegiratu nahi hizkuntza-aldetik egin duen hautuagatik. Erdaraz egin nahi duenak egin dezala erdaraz, hor konpon. Euskaldun zaharra edo euskaldun berria izan ala ez. Nik ez dut muturra sartuko inoren bizitza pribatuan. Baina arrazoi berberagatik amorrua ematen dit ikusteak beste batzuek horixe egin nahi dutela bestean bizitzetan. Estatistika bat eta lau galdera azalezko eginda jakin nahi dute itzultzaile baten ahalmena eta kalitatea zein den. Azken finean, horra zer gertatzen zaigun: ona eta txarra zer den nork bere kabuz bereizteko ahalmena galdu omen dugula, eta hori bai barkaezina, zerren orduan taldera lerratu beharra daukagu, tximinoen taldera, gutako jakintsuena zein den erabakitzeko, eztabaidatzeko, eta batez ere murrak altxatzeko, geure harropuzkeriaren eta botere-nahi pertsonalen arabera altxatu ditugun hierarkietatik inork ihes egin ez dezan, publiko eskuzabal eta koldarraren *konplazentziarekin* ez bada.

Azkenik, zera esan nahi dut: batzuek euskaltegira ez, baizik psikiatrikora joan beharko luketela daukaten beherako pornolinguistikoa sendatzera. Nik horiei zera esaten diet: utzi bakean bizitzen. Eta darabildan euskararekin arazorik

baduzu, kontrata itzazu zinpeko itzultzaile/interpretari baten zerbitzuak nirekin hizketan aritu nahi baduzu, behintzat. Edo hobeto, ez aritu hizketan nirekin. Igaro zaitez aurrera ni hortxe egongo ez banintz bezala. E? zer? Dagoeneko horixe egiten duzula? A, orduan ni bezala.. Ikusten? Azkenean, elkarri aditu diogu. Bai, bai. Nik ere gauza bera opa dizut: Ke te den por el k...

Itzulpengintzan bota beharko genituzke geure literatur ahaleginik jatorrenak. Izan ere, sinetsita nago oraindik goizegi dela: gutako idazlerik onenak ez du bere burua neurtzerik kanpoko idazle unibertsalik xumeenarekin. Bai, ongi dago bertoko idazleak bultzatzea, baina bost nobeletatik hiru itzulpengintzari lotuko nituzke nik, eta beste biak bertoko idazleei. Bestela, honek ez du funtzionatuko. Euskal irakurleek euskarazko itzulpenekin hunkitzen ikasi behar dute. Hori lortzen ez bada, galduta gaude. Kultur garapena ezin izango dugu zulotik atera. Gainera, benetako kalitatera hurbilduko diren euskal idazleak ikusezin bihurtzeko arriskuan egongo dira; eta horren ondorioz, egoera penagarri hori errealitate endemiko bilakatuko zaigu. Horrek hizkuntzaren desagertzea azkartuko du. Eta konturatzen garenerako, prozesua itzulezina izango da.

“Kutsidazu bidea, Isabel” liburuak erdietsi duen arrakastak zera baino ez du frogatzen: gaur egun literatura probintziano eta motzak daukala arrakastatsua izateko aukera bakarra. Bigarren mailako irakurleen bidez lortzen dira horrelako “emaitza onak”. Baina horrek “gaur, ogia; eta bihar, gosea” baino ez digu ekarriko. Goi mailako literatura ezin da euskarritu bigarren mailako irakurlerian. Txanponak irabazteko ongi dago, baina beste ezertarako ez.

Hildakoen Entziklopedia Danilo Kis-en liburuko “Aintzazkoa da aberriaren alde hiltzea” ipuina irakurtzen ari nintzen, eta halako batean honako esaldi hau topatu dut: “Eta garrasiak hurbil zeuden bozkariotik (jendailak atsegin duelako harroak eta ausartak lur jota ikustea)”. Batez ere, bigarren esaldiak piztu dit arreta. Egia, pentsatu dut, horrexek adierazten ditu gauza asko eta asko: “jendailak atsegin duelako harroak eta ausartak lur jota ikustea”.

Euskal literatur itzulpenak zenbat maite ditudan ez da sekreturik. Baina azkenaldian garbi baino garbiago ikusi dut euskal idazleak, oro har, bost axola zaizkidala. Ia ez dut euskal idazlerik bat

ere jasaten. Erdipurdiko batzuk baino ez dira ia guztiak. Ideologiaren arabeko taldetxoetan bildurik, artalde intelektual horretatik inork ihes egingo ote dien beldurrez, haien biluztasunak ozta estaltzen dizkien hizkuntza desitxuratu baten jabe... aldra patetikoagorik!

Esango nuke bi irakurle mota daudela: alde batetik, euskarazko liburuak bakarrik irakurtzen dituzten irakurleak (nahiz-eta bertoko idazleez beti gaizki esaka aritzen diren); eta beste alde batetik, bertoko idazleak hitz balakagarriez goraipatzen dituzten irakurleak (nahiz-eta euskarazko libururik inoiz irakurri ez). Zenbait idazlek bigarren mota horretako “irakurleak” preziatzen dituzte bereziki. Ni, nola ez, lehenengo mota horretako irakurleen artean nago. Nabaritzen al zait...?

Euskal Herriko progreek diote euskara asko maite dutela. Bai, baina haien “helburu politikoetatik” aldentzen denak larrutik ordaintzen du. Orduan, akabo euskararen fartsa; orduan, horra hor haien benetako aurpegia; orduan, stalinisten zartailuarekin kontuz ibili, lagunok! “Nirekin, ala nire aurka”. Hori bai, egun puta guztia ariko zaizkizu elkartasunaz. Negarrez ere hasiko dira borrero zintzo horietako batzuk, munduan diren injustiziak gehiago sufritu ezinik. Bai, lagunok.

Sinetsidazue, horiek zitalagoak ez badira, ezin dutelako da (ez da onberatasun-kontua, benetan).

Sugeak pasahitza helarazi die bere habiako gainerako sugeei: “Aizue, hori ez duk gure habiakoa. Ez zaigu komeni garbitzea, oraingoz; baina esan mundu guztiari txarra dela; eta artista denez, uztazue barregarri, suntsituko diagu ederki”. Gero, suge guztiak globalizazioaren aurkako ekitaldi batera joan ziren, non igaro zituzten une heroiko gogoangarriak. Ekitaldia amaituta, aitzurraren ondorezak behin igarota, barrutik garbi-garbi sentitzen ziren, munduko sugetzarrik onenak, bekaturik eta akatsik gabeak, etorkizuneko itxaropen berria, mundua salbatuko zuen hazia.

Lau misil nuklear eskuratu zituztenean, erakutsi ziguten benetan nortzuk ziren.

Miss lehiaketetako neskatoei galde egiten zietenean ea zein zen irakurritako azken liburua, denak lehiatzen omen ziren erantzutera: Gabriel García Márquez-en Cien años de Soledad. Antzeko maila intelektuala duten euskal irakurleei hori bera galdetzen dietenean, berehala erantzuten dute: Bernardo Atxagaren Obabakoak. Ia ez dute gehiagorik ezagutzen. Bueno, bai: Sarrionandiaren liburu bat edo beste (arrazoi politikoengatik, beste ezerengatik baino gehiago).

Behin, *** telefonoz deitu zion *** margolariari. Bere burua aurkeztu, haren muturretan barre egin eta segituan telefonoa eskegi zuen. “Mixerable alua. Hori al da unibertsitatean irakasten duana....?”, pentsatu zuen margolariak. Horra hor Euskal Herriko beste intelektual handi bat. Artaldea zaintzen ibiliko zen hura ere. Ikertu beharko genuke Jokin harresitik behera bota zutenetako bat izan ote zen.

Bazegoen tipo bat *** enpresan marrazki bizidunak eta erreportajeak itzultzen eta egokitzen ziharduena. Tipo itsusia zen (nire ustez, arima aurpegira igo zitzaiolako). Euskara pobrea erabiltzen zuen, hark bestelakoa uste izan arren. Ez dakit haren izenik. Jakingo banu ere, ez nuke aipatuko (ala bai, auskalo...). Txerri *txaubinistak*, baxoerdien zale harroputz eta *perogrulloak* ez ditut inoiz nire gogoko izan; baina jendartean borreroarena egiten ibiltzen diren erdipurdikoak are eta gutxiago. Egunen batean, *** eman zenidana zuri bueltatzeko aukera badut, bueltatu egingo dizut. Egon ziur horretaz. Tamalez, batzuetan egur asko hartuta eta egur gutxi emanda joan behar izaten dugu lurbira honetatik. Zer egingo diogun ba, hala bada...? Saiatuko gara, behintzat.

Euskal intelektual batzuentzat hori da euskal kultura: egurra ematea taldetxokoak ez diren guztiei. Egunen batean ikusten dituzu zahartuta, eta orduan konturatzen zara zeinen patetikoak eta zeinen gezurtiak izan diren.

“Ergelentzat idazten jakingo banu, aspalditik izango nintzateke arrakasta handiko idazlea”, esan zuen behin ***k. Egia *berdaderoa* ala mendeku patetikoa? Bietatik akaso, bietatik.

Liburu bat Lege-Gordailu zenbakiarekin argitara ematen denean, dagozkion inprimakiak bete eta aurkeztu behar dira Eusko Jaurlaritzako atal jakin batean. Eta inprimakiekin batera, argitaratu duzun alearen bi ale. Gero, bi ale horietako bat Madrileko Liburutegi Nazionalera bidaltzen dute, eta bestea Koldo Mitxelenara. Nik, egia esan, garai batean ez nekien hainbeste. Garai hartan, beraz, nahiko ondo lan egiten zuen fotokopia denda berezi batean eta inprimategi apal batean hainbat liburu aterarazi nituen. Tirada laburrak izan ohi ziren: 100en bat alekoak edo (salbuespen modura, 250 alekoak). Argitalpen sinbolikoak ziren, *testimonialak* ia-ia. Beno bada, Lege Gordailuaren bulegoan entregatu beharreko

aleak, aipatu bi liburutegitara bidaltzen zituztela ez nekienez, nik ale akastunak eramaten nizkien (beti ateratzen zen halakoren bat), pentsatzen bainuen bi ale haiek gordetegi ilun eta pipiak jotakoren batean amaitzekoak zirela. Jakin nuenean liburu haiek nora zihoazen, aitortu behar dut jota geratu nintzela. Bestalde, nire buruari zera galdetzen diot: eta Interneten argitaratu ditudan liburuen kasuan, Lege Gordailuaren bulegoan entregatu ditudan CD-ak edo hiru eta erdiko disketeekin zer egin dute, Madrilera eta Koldo Mitxelena-ra ere bidaliko al zituzten?¹ Eta hala izan balitz, zer egingo ote zuten liburutegi horietako arduradunak? apalategietan jarriko zituzten...? Ez dut uste bada hain lerdoak izango zirenik. Ala bai...?

Beste behin, *** idazleari hauxe entzun nion esaten afari batean: “Eta euskaraz itzulpen bat behar legez irakurtzeko gai ez direnen erdeinua jasan behar izan dudala pentsatzea ere! Hau *bastardo-herria*, hau...”.

¹ Interneten argitaratzen diren liburu elektronikoei lege-gordailu zenbakia eman nahi izanez gero, prozedura bera da, hau da, dagozkion inprimakiak bete eta liburuaren bi ale aurkeztu behar dituzu, baina Interneten argitaratzeko “liburuak” direnez, liburu fisikoen ordez, liburuei dagozkien artxiboak (Word artxiboak, PDF artxiboak...) aurkeztu behar dira, dela CD-ROM batean dela 3 1/2ko diskete batean.

Akaso, harroputza izatea aurpegiratuko didate. Baina, nortzuek...? Intelektual *poteatzaileek* akaso...?

Iraultzaile *kontestatario* hura artaldeko ardia baino ez zen. Hala ere, hark uste zuen aurreiritzi guztiak apurtuak zituela, eta artaldeko ardi zintzo eta esanekoa izatetik oooso urrun zegoela. Ahoa zabaltzen zuen bakoitzean, ordea, “meheeeee” argi eta garbi bat eskapatzen zitzaion, Euskal Herriko mendi, zelai eta belardi guztietan zehar hedatzen zena. Ezkerreko ardia zen, eta mesfidantzaz begiratzen zion eskuineko ardiari. Tontolapiko bat baino ez zen, noski (baina ez zuen inoiz jakin).

Alkahuete-antza eta kontakatilu-iduria hartzen dizkiet gaur egungo sexologo liberal eta jakintsuei.

Idazleak –gainerako artistak bezala– ispilu antzeko dira euren gizarterako. Beraz, idazleen artean egun dakusagun elkartasunik eza gure gizartearen isla baino ez da. Ez gehiago ez gutxiago. Noski, horrek ez du inor ere justifikatzen.

Txilikuk 25 biografiatan oinarrituta liburu berria eman du plazara. Eta hark berak aitortu duenez, biografia horietan “gezurrezko elementu” bat edo beste sartu du. Jolas antzekoa omen da, irakurleak gezurrezko elementua antzeman behar duelako. Berriak-en biografia horietako bat argitaratu zuten eta ez zitzaidan gaizki iruditu. Dena den, ez dakit zenbateraino ote den etikoa benetako pertsona baten biografia nahita aldatzea edota gezurrezko elementuak nahita sartzea. Ipuinek ipuin eta biografiek biografia izan behar dute, nik uste. Hark biografia batzuetan oinarrituta ipuin batzuk asmatu nahi bazituen, orduan hori egitea zeukan: egiazko pasadizo batzuk zuhurtasunez erabili, bere kasako beste zenbaitzuk erantsi... ipuina “maneatu” arte. Baina Txilikuk alderantziz egin du, eta nik ez dakit noraino ote den etikoa. Noski, “ikaragarria” edo “barkaezina” denik ere ez zait iruditzen. Ez da hori. Gogoeta txiki bat baino ez da, besterik gabe.

Azkenean, gure argitaletxeek marketingean oinarritutako pentsamendu bakar antzeko zerbait bultzatzen amaitu dute. “Globalizazioa euskal kulturari”, hau ere oso gai polita izan liteke doktoretza-tesi baterako edo saiakera baterako (uste dut saiakerak modan daudela aspaldi honetan, ezta?).

*** idazleak *** aldizkariaren 102. zenbakian dioenez, bera ez da kontsensuko idazlea. Baina nik uste dut baietz, kontsensuko idazlea dela. Azken finean, Euskal Herrian idazle-kolektibo bat baino gehiago dago (*** idazleak berak dioenez, sei edo zazpi kolektibo daude, gutxienez). Eta bera, ***, kontsensuko idazlea da kolektibo horietako bateko kide denez gero. Hitz hauek ezeztaezinak dira.

Bestalde, ukatuarena egiten duen idazlearen aurka ere egiten du, idazle ukatua izatea idazle ukatuaren errua izango balitz bezala. Nire ustez, hori koldarkeria baino ez da, ia-ia *matón* baten pare jokatzeara. Azken batean, idazle ukatua idazle ukatua izango da merezimendu osoz ala merezimendurik gabe. Jainkoek, irakurleek eta Guru ahalguztidunek erabaki dezatela. Baina ukatua baldin bada, ukatua da eta kito. Bazter dagoena (merezi izanda ala ez) gehiago bazter duena mixerable bat baino ezin da izan.

Elkarrizketa berean, *** idazleak zera dio:
[...] *Horretan ari garela, azaltzen ote dira ranking horretan Azken fusila, 100% Basque, Ur uherrak, Lur bat zure minari, Larrepetit, Harrien lauhazka, Gasteizko hondartzak, Botoiletan, Ipuin errotikoak, Bala zeru urdina... [...]. Bada nik honela planteatuko nuke: [...]* Horretan ari garela, azaltzen ote dira ranking horretan Parisen sabela,

Bederatzietatik bederatzietara, Ipuin fantastikoak, Peter Schlemihl-en istorio miresgarria, Wilkoko andereñoak, eta abar, eta abar [...]. Nire balio-eskalaren arabera, horixe da egin beharreko galdera. Berariaz, aipatzen dituzun liburuak ez al dira zure kolektibokoak...? Eta zu ez zarela kontsensuko idazlea diozu...?

Beste gauza bat. Milioika pertsonak ordenagailu baten aurrean egiten dute lan, eta horregatik ez diraitsu geratzen. Zure liburuek, paperean zein euskarri informatikoan, zure liburuak izaten jarraitzen dute. Ez dira ez hobeak ez txarragoak, euskarri batean zein bestean plazaratzeagatik. Nik ere gogoko dut ohiko formatuan irakurtzea. Eta etxean dudana 2.000 ale inguruko liburutegitxoa horren froga bikaina da. Egia esan, hori da normalki erabiltzen dudana formatua irakurtzeko, ohiko liburuarena alegia. Baina egia ere bada ni zortzi edo hamar orduz aritzen naizela ordenagailuaren aurrean lan egiten, eta horregatik izango ez balitz, agian ez litzaidake inportako noizean behin gauza batzuk on-line irakurtzea edota nire ordenagailuan leitzea. Dena den, liburuak plazaratzeko euskarri berri bat atzera botatzea zuk atzera bota duzun bezala, ausartegia iruditzen zait; areago, *insolidarioa* ere iruditzen zait (barkatu, elkartasunari buruz zuri lezio txiki bat ematera ausartzeagatik). Aizu, argitaratzea garestia da, eta herrialde txiro askorentzat hau izan daiteke aukera bakarra kultura euren herri txiroetan aurrera ateratzeko. Eta arrazoi batengatik edo besterengatik

marginatuak eta *ukatuak* edo *out-siderrak* diren idazletxoentzat ere aukera polita izan daiteke barruan daukatena nolabait behintzat jendaurrean plazaratzeko. Egia esan, bizitza eta gizartea, oro har, nahiko konplexuak eta ulertzen zailak dira, eta horregatik hain zuzen esan daiteke ezen neurri batean edo bestean denok garela *kontsensuko idazleak*; eta alderdi batzuekiko erakusten ditugun eskuzabaltasun eta elkartasun-adierazpideak atzaparkada gaizto bihurtzen zaizkigu beste alderdi batzuen aurrean (edo atzean) egotea suertatzen zaigunean. Azken finean, den-dena ulertzerik ez daukagu, lagun. Ez zuk ez nik.

Dialektika bilatzen ez duen irakurleak hobe irakurriko ez balu. Aurrean dugun liburua inbaditzailetzat jo behar da beti, lehenengo eta behin. Aurrean dugun liburuaren atzean ezkutatzen den idazleak gure etxean sartu nahian dabilen inbaditzaile bat da. Horrelaxe ikusi behar zaio idazleari. Eta inbaditzailea denez, gurea kendu eta horren orde bere munduarioa inposatu nahi izango digu. Horregatik, diot, ezinbestekoa dela liburu, artikulua eta idatzizko zera guztien aurrean jarrera dialektikoa erakustea, nahi ez baldin badugu esaneko arditxo intelektual bihurtu. Inbaditzailearen pentsamenduari aurre egin behar zaio; eta horrela eginda ere, egon ziur barrura sartuko zaizkigula, hainbat zirrikitutatik. Pozoia bezalakoa da eta gure *intelektoa* pozoiz horretaz

elikatzen da izaten jarraitzeko (batzuek “aberasteko” hitza ere erabili ohi dute). Nik ez dut mitorik nahi; besteak gizonen modura ikusten ditut eta besteek gizon baten modura ere ikus nazatela. Gizaseme bat mito bilakatzen dugunean, hobe dugu haren eskuetan botererik jarri baino lehen hura urkamendira eramatea. “*Palabra de Dios, te alabamos Señor*”.

Orain dela gutxi, Berriak egunkarian artikulua laburrak idatzi ohi dituen neska batek zera zioen, gutxi gora-behera: “*Baliteke gu tronpaturik egotea. Baina agian, egunen batean (ez du zehazten noiz) gu erabat zuzen geundela frogatuko da*”. Egia esan, barregura handia egin dit artikulutxoak, zeren horren arabera, sistema hobeagorik ezin baikenezake asmatu inoiz inori barkamena eskatu beharrik ez izateko, edo inoren aurrean inoiz aitortu beharrik ez izateko, zera: “Zuek zuzen zeundeten eta gu oker geunden”. Neskak darabilen trikimailu patetikoak apaltasuna guztiz ezabatu eta jarrera stalinista harroputza baino ez du uzten agerian, bai eta ondo utzi ere agerian. Bai horixe. Azken finean, politikan axola duen gauza bakarra orainaldia da. “Gerokoak geroko”, neska. Eta ilusioa egiten badizu, hasi zeure historia idazten, mundu guztiari frogatzeko zu sekula santan ez zarela oker egon. Eta zeure historia idazten duzun bitartean (eta ziur nago idatziko duzula, *manipulatzaile* horietako bat

zarenez), bidean galdu duzun guztiaz ez egin aipamenik txikiena ere (bestela, agerian geratuko zinateke...).

“Mila eta bat gauen gauak”, Nagib Mahfuz Egiptoko idazlearena. Ipuin-liburu polita da, bai, baina... are ederragoa Patxi Zubizarretak egin duen itzulpenari esker. Harri eta zur utzi nau; aspalditik ez nion liburu batetik oharrak hartzeari ekiten. Zorua bezala hasi naiz egiteko horretan. Chapeau! Besterik ezin esan. Maisu-lana da hau, eta ez itzulpena. Liburu batzuk irakurri egiten dira, eta gero kito. Beste liburu batzuk, berriz, ikasi egiten dira. Hau horietakoa da, dudarik ez.

Lehengo egunean, telebistan, kazetari ospetsu eta ausart batek zioen euskal literatura munduko beste edozein literatura bezain ona dela. Bueno, berari hala iruditzen bazaio... Baina, aizu, eta nor da gure idazleetan Tolstoiri, Victor Hugori, Pessuari, Julio Cortázarri, Bukowskiri, eta abarri itzala egiten diona...? Ez gorde zuretzat sekretua... Dena den, eta goiko paragrafoaren haritik, merezi du horretaz gogoeta zehatzagoa egitea, batez ere honen inguruan: liburu bat euskarara bihurtzen dugunean, liburu horren egilea euskal idazle bilatzen dugu. Hori horrela da, neurri handi bezain metaforiko batean. Eta ikuspegi horretatik, bai,

esan dezakegu euskal literatura munduko beste edozein literaturaren mila berean dela, baina horri inori zor badiogu, jatorrizko euskal idazleen multzoari ez, baizik itzulpenaren bidez geureganatu ditugun idazle arrotzen multzoari zor diogu, eta batez ere, itzulpengintzari, zeren ez dakit inoiz esan ote dudan, baina Euskal Herrian hizkuntza-normalizazioa lortu duen alor bakarra euskal itzulpengintza da. Eta hau, jaun-andreok, Olentzerok ekar ziezagukeen oparirik ederrena da: normalkuntza, azkenean, lortua! gehiago geroratu gabe, hementxe dugu normalkuntzaren autobusa, ITZULPENAK geronen etxeraino ekarria. Behintzat, eduki ditzagun gauzak argi eta garbi.

Euskal intelektualen artean badira “*borrego*” peto-petoak, eta horietako askok “ezker-zaletasunean” ezkututzen dituzte euren ahuleziak. Adiskidekerian oinarrituriko idazlea baino gauza patetikoagorik ez dut egundo ezagutu nire bizitza guztian.

*** aurkezleak egiten duen saio berrian hainbat gonbidatu ditu, astero-astero saioan agertzen direnak. Gehientsuenak euskaldun zaharrak dira, eta esan beharra dago *** aurkezleak gustu eta sen ona erakutsi dituela horiek aukeratzeko orduan, *** idazlea bera guztien buru

agertzen delarik... Baina saioan astero agertzen diren gonbidatuen artean bada euskaldun berri bat, filosofia ikasketak eginak dituen, eta zoritxarrez, bere burua euskaraz adierazteko arazo handiak dituena. Eta nire galdera hau da: zer dela eta aukeratu du *** aurkezleak euskaldun berri hori bere programarako? Saioan beti agertu behar zuten euskaldun zaharrak aukeratzeko orduan, tentuz jokatu badu, zergatik ez du modu berean jokatu euskaldun berria aukeratzeko orduan? Kasualitatea ote...? Nik ez dut kasualitateetan sinesten; edo, behintzat, ez mota horretako kasualitateetan. Nire ustez, ***k nahita egin du; eta nahita egin du, ***k filosofo bat ez, baizik bufoi bat eraman nahi izan duelako bere saiora. Horrekin ez dut esan nahi aipatzen dudana pertsona niretzat bufoia denik; ***ren asmoak baino ez ditut aitatzten. Eta horretxegatik, hain zuzen, bufoi bakarra *** izan delakoan nago, besteen lepotik jendeari barre eragin nahi izateagatik. Eta ez zait kontu bat ere garbia iruditzen, ez horixe; aitzitik, iruditzen zait ezen haren partetik nahiko jarrera mixerablea dela. Areago, uste dut ez dagoela eskubiderik, euskaldun berrion artean hainbeste eta hainbeste hiztun egoki izanik, horrelako gustu txarreko txantxa egitea. Zer nahi zuen horrekin frogatu ***k...? euskaldun zaharrak beste inoren gainetik daudela? Bada hori frogatzeko, lehenik, ***, zure maila bereko lehiakideak aukeratu beharko zenituzke. Zeren, horixe da zuk egin duzuna: elbarridun bat ateratu duzu frontoira indarrak neurtzeko; eta hari jipoi ederra eman eta gero, garailearena egiten hasi zara.

Higuingarria, benetan, egin duzuna. Jendeari euskaraz bizitzeko gogoa kentzen jarraitu nahi baduzu, segi bide horretatik. Bukatzeko, galdera bat: saioa bukatutakoan, gizon hori eramango al duzu Hondarribiko harresira, handik jauzi egin dezan? Grabatu eta guzti egin zenezake erorketa, zure herriko baturroek horretaz ere barre egin zezaten. Eta ETBk kontzientzia-arazorik balu irudiak erakusteko, beti izango zenuke Interneten bideoa eskegitzea edo telefono mugikorraren bitartez irudi kitzikagarriak lau haizetara zabaltzea...

Bizitzan, noizbait, baina zahartzaroa baino lehen, une bat dago non atzera itzultzen saiatzen garen, alferrik noski; gero, kontzienteki edo inkontzienteki gure ekintzaren absurduaz konturaturik, aurrera segitzen dugu gehiago atzera begiratu gabe, zahartzarora heldu artean, noiz-eta atzera begiratzeko baino ez baikara biziko.

Idatzi egin dut, baina ez dakit idazlea izan naizen (izango ote da egia idazlea salbatzen duen bakarra ziurtasunik eza dela?)

Lanaren eta gainerako arduren gatibutasunetik ihes egiten dudanean, berriz ere aurkitzen dut nire burua... idazteari guztiz, ezinbestez, emana. Orduan, nire barruan sentsazio bero, atsegin bat sumatzen dut (harrotasuna esaten zaiola uste dut).

Lan-jardun amaigabeetan nire idazle-bokazio alferrikalduaz pentsatzen hasten naizenean, gaixotu egiten naiz. Dena den, akaso gauza ona da benetako bizitzan nolabait ainguraturik egotea (itsaso zabalean galtzeko ametsa horren tentagarria izanik...).

Suelto uzten nautenean, idazteari heltzen diot halabeharrez. Badakizue: ahuntza beti mendirantz...

Ondo da sexu-gosea asebetetzea. Sexu-gose fisikoaz ari naiz; zeren bestea, animikoa, hori ez baita inoiz asebetetzen. Aldi baterako ez bada; baina beti itzultzen da, lehenago edo beranduago. Adina gaintitzen duen grina da, grina dohaintsua, ia-ia santua. Engainua guztiz atzitzen ez den seinale; edo guztiz kontrakoaren seinale (gauzak nondik ikusten diren).

Lehen, bekatuan zegoen gaizkia; orain, berriz, delituan. Lehen, heriotzaz harantzako zigorrek beldurtzen gintuzten; orain, mundu honetakoek. Jainkoak koroa janzteari utzi eta txapela jantzi du. Gizatiarragoa da, gure artean dabil, bat gehiago bezala. Hain arrunta, ezen, hartaz ahaztu garen. Eskuzabaltasun handiagorik bere aldetik...

Ideiak zabaltzeak ideiak indibidualki baitaratzea esan nahi du; beraz, ideiak munduan zabaltzen ditugunean, ideia horiek gu bezalako beste gizabanako batzuegan atzitu baino ez ditugu egiten. Gure hutsaltasunaren beste erakusgarri bat...

Paper orri zuri baten aurrean egoteak ez dit beldurrik ematen; bizitza zuri baten aurrean egoteak, ordea, ikaratu egiten nau.

Nortzuk gara? nortzuk izan ginen? eta nortzuk izango gara...? Horra hor galdera guztien galdera, lehenago edo beranduago “galera” bilakatuko dena.

Izadia kontzeptu eta egitate garbia eta aratza da, “purutasun hutsa”. Baina jar ezazue bertan gizaki bat, eta dena hasiko da usteltzen. Naturak, bere aurpegirik bortitzena erakusten duenean ere (eta hain zuzen, “bere aurpegirik bortitzena erakusten duenean”), ez du bere araztasuna, bere garbitasuna galtzen; aitzitik, bere araztasuna berretsi baino ez du egiten. Lurrikara dela, labazko okada dela, tsunamia dela... berdin dio. Beti da ederra eta ez du bere edertasun horretatik puskarik txikiena ere galtzen. Baina gizaki bat agertzen denean, orduan dena hasten da izorratzen, dena hasten da hondatzen. Gizakiak natura usteltzen du, *korronpitu (usteldu)* egiten du. Zergatik? Gizakiak berekin ustelkeria daramalako. Gizakia zikina da, baldarra da, ez du entzuten izadiaren kantua, barrutik ustelduta dago. Gizakia noizbait betiko galduko balitz, mesede ezin handiagoa egingo genioke ama lurrari, izadi osoari. Eta beharbada, baita gizakiari berari ere. Horra zer pentsatzen dudana gizakiari buruz.

Gauzei buruz besterik gabe pentsatzen hasten garenean, berehala nekatzen gara, eta pentsatzeko denbora oso gutxi izan arren, iruditzen zaigu denbora luzez aritu garela gogoeta egiten. Ez gaude ohituta pentsatzera, ez baldin bada gauza

hutsalei buruz. Edo bestela, pentsamenduaren alde praktikoari heltzen diogu (gure espiritu *kontsumistari* traizio ez egiteko edo): pentsamenduak balio badigu hau eta hura lortzeko, orduan pentsamendua “martxan” jarriko dugu, baina pentsatzea soil-soilik pentsatzeagatik... ai, lagun, hori beste hariko ezpala da. Pentsamendu abstraktua jitez gorrotatzen dugu (erlijioen eta pentsamendu filosofikoen gainbeherari begiratzea besterik ez da behar hitz horiek baieztatzeko). Pentsamendu abstraktua, ordea, izadiaren mintzaira da, naturarekin harremanetan jartzen gaituen hizketa-modu bakarra da. Baina 140 zaldiko auto bat erosteko balio ez digunez, baztertu egiten dugu. Azkenean, egia izango da eroetxeak jende miresgarritz beterik daudela...

Kultura handi baten partaide izatea ez luke inork erdeinatu behar; nik, behintzat, ez dut Amazonian bukatu nahi kaiman eta sugeetatik ihesi...

Batzuetan, gizabanako handiak kultura txikietan sortzen dira; eta beste batzuetan, alderantziz, hau da, gizabanako txikiak kultura handietan sortzen direla.

Ni nahiko “urbanoa” naiz, baina horrek ez du esan nahi edertasuna estimuan ez dudanik. Horregatik, saiatzen naiz ahalik eta gutxiena ateratzen etxetik. Loiola, Martutene, Ergobia, Astigarraga eta Hernani inguru gehienak... hondakindegia bihurtu dituzte, obra *faraoniko* amaiezinen jomuga. Eta ez omen dago erantzulerik. Hau lotsa, hau.

Begirada bat bota diot Euskadi saria irabazi duten idazle eta itzultzaileen zerrendari, eta honako izen hauek topatu ditut: A. Lertxundi, Andoni Egaña, Juan Kruz Igerabide, Juan Garzia, Lourdes Oñederra, Felipe Juaristi, Irene Aldasoro, Karlos Linazasoro, Josu Zabaleta, Itxaro Borda, Miren Agur Meabe, Pello Lizarralde, Koro Navarro, Iban Zaldua, Patxi Zubizarreta, Atxaga, Montoia, Jon Muñoz, Xabier Olarra, Arkaitz Kano, Aingeru Epaltza, R. Saizarbitoria, "Txiliku", Eduardo Gil bera, Xabier Olaso...

Idazle eta itzultzaile "otzanak" ote dira horiek, eta horregatik eman zieten Euskadi saria? Aipatutakoek ez al zuten tamaina intelektual nahikoa eta ez ziren orduan horrelako sariak irabazteko duinak izan? Ni, behintzat, ez naiz uste horretakoa. Saria merezi zuten, eta kito.

Aldatu ote dira gauzak azken denboretan...?
Ez dakit, baina badirudi ezetz, azken Euskadi Sariak nortzuek irabazi zituzten ikusita: Iban Zaldua, Xabier Olarra, Patxi Zubizarreta...

Norbaitek esango balit: "Euskadi sariak ematen dizkiete merezi ez dutenei". Bada hori egia balitz, sari horien aurkako jarrera bidezkoa irudituko litzaidake. Baina orain arte saritutakoak kolore guztietako euskal kulturgileak izan badira eta herrian eta kulturgintzan onespenez zabala duten idazle-itzultzaileak baldin badira, orduan non dago arazoa?

Akaso gauzak oso kanpotik ikusten ditut nik. Beharbada ezezagunak zaizkit sariketa horri buruzko hainbat kontu (berariaz, ba ote dago kontu zikinik gabeko sariketarik...?). Dena den, gauzak kanpotik ikusten dituen batentzat gertatzen ari denak ez du zentzu handirik; edo okerrago, gure herrian bizi dugun bipolarizazio politikoak badirudi sariketa hau bete-betean jo duela.

Botere-kontua ote da dena? Alderdi politiko jakin bateko *karneta* eduki behar al da Euskadi sariak irabazteko? ala, ideologia jakin batekoa izan behar al duzu Euskadi sariaren aurkako jarrera hartzeko? Zein da idazle guztien "paritatea" eta "berdintasuna" bermatzen dizkigun "aukera intelektuala"? "Utikan" manifestua sinatu duten horiena? Eusko Jaurlaritzak aitatiarki erakusten diguna? Zeri ematen zaion "hil edo biziko"

garrantzia azken finean: sariketaren alderdi formalei ala sariketaren mamiari (merezi duten lanak saritzeari)?

Gauzak etxeko leihotik ikusteak alde on eta alde txarrak ditu: urrutiegi dauden gauzak ikusezin bilakatzen dira, paisaia ezin hobeto ikusten bada ere; eta alderantziz, oso hurbil dauden gauzak primeran ikusten dira, paisaia (ikuspegi orokorra) ikusezin bilakatzen bada ere.

Bestalde, ez dakit oker nagoen, baina hemen badirudi alde batetik "idazle jatorren taldea" dagoela eta beste alde batetik "erakundeak" (zeren "idazle instituzionalei" buruz mintzatzea ez al litzateke gehiegi izango, goiko zerrenda kontuan hartuta...?).

Tira, guztionek ematen du betiko kaka-nahastea baino ez dela. Euskal Herriko bizitza politikoan eta kulturean parte hartzeko gogoak kentzen duen betiko kaka-nahastea. Kulturgintzak horrelako ajeak erakusten dituenean, kulturgintza ez baizik *kakagintza* bihurtzen da. XVI. mendean bezalaxe gabiltza. Bandoak: gurekin ala gure aurka.

Dena den, lehiaketa dagoeneko "ukituta" dagoen susmoa dut, zerena... bertara aurkeztuko diren idazleei "traidore" etiketa jarriko ote diete batzuek...? Hori Euskadiko sariketa bera baino

askoz ustelagoa izango litzateke, ageriko arrazoiengatik.

Sariketak orain arte funtzionatu egin du: hor dago saridunen zerrenda. Zer irabaziko genuke lehiaketa hau bertan behera utzita? Indar-erakustaldia ote da hau? Gure zirkuaren *mediokritatea* nabarmen uzteko beste urrats bat...?

Nik benetan esaten dizuet: Frankoren eta Stalinen estatua guztiak dinamitatu egingo nituzke. Baina ez dakit euskal idazle guztiak horrekin ados egongo ote ziren.

Bukatzeko, egia da Euskadi Sariak erakunde-mailako sariketa dela. Eta erakundeetan, nortzuk daude ba? Bada hauteskundeak irabazten dituztenak. Beraz, sariketa horren atzean hauteskunde-irabazleak (agintariak) agertzea, normala iruditzen zait (herri guztiz analfabetoa ez garen seinale). Nortzuek agertu behar zuten ba, Albaniako kultur ordezkarietakoak akaso...? Herrialde [zibilizatu] guztietan antolatzen dira [ofizialki] horrelako ekimenak –Tongon eta Tanzanian izan ezik, tamalez–. Batzuek sariketa hau ez dutela gogoko? Beno, bada antola dezatela beste sariketa bat. Eta horrela, bat ez ezik, bi ere izango ditugu.

Hori bai. Ez etorri nigana literaturaren izenean gauzak horren nabarmen politizatu nahian, zeren orduan hauxe baino ez dizuet esango: utz

nazazue bakean, muntatu duzuen antzezpena ez zait bat ere axola eta.

Goiko gogoetari tiraka, hauxe ere gaineratu nahi nuke: Nafarroako Gobernuak Euskadi Sariketarik ez antolatzeaz kezkatu beharko genukeela, Euskadi Sariketa bakarra antolatzen digunaren aurpegira txuka aritu beharrean.

Dena den, pentsamendu abstraktuarekin zerikusirik ez duenarekin jarduteak gero eta hotzago uzten nauela ere esan beharra daukat. Bestela, “taldeko idazle” bihurtzeko arriskua dago. Eta hori ere ez da mahukarik.

Ez dut uste inoren gainetik nagoenik. Baina zergatik arrimatzen da gizabanako ahula taldeagana, ez baldin bada bere ahuleziak ezkutatu eta bera baino indartsuagoa denaren gainetik jartzeko, eta guztia beti talde *sakrosantuaren* izenean, non mota guztietako akatsak barkatuak diren zinismo-erakustaldi ezin finagoko esku-erakutsiaz?

Txakur bat zaunka eta zaunka daukan
auzolaguna “auzoetsai” izendatu beharko genuke.

Batzuek sinestarazi nahi izan digute ongi
idaztearen artea salmentei loturik dagoela. Eta
zenbaitek, baita sinetsi ere. Ergel halakoak!

Batzuek hizkuntza zikintzearen alde egin
dute, eta emaitza onak lortu dituzte. Beste batzuek,
hizkuntzaren garbitasunari men eman diote, eta
horietako askok badakizue zer-nolako liburuak
atera dituzten: “Lassie, nire txakur maitea”, eta
abar.

Idazle batzuk urduri jartzen dira astean
behin egunkarian agertu izan ezik. Ni, ordea,
egunkarian bi urtean behin agertzeak artelatzen
nau. Ohitura-kontua izango da, noski...

Hemen balio duen gauza bakarra da, ez
zeure lekua topatzea, baina zeure espazioa topatzea.

Hizkuntza bat ongi ez dabilenean (normaltasuna, esaterako, eskuratzerik ez dagoelako), “inkomunikazio-guneak” sortzen dira. Eta gune horiek ugaritu ahala, ozono-geruzaren antzeko efektua eragiten dute. Hortik aurrera, denok badakigu ondorioak zeintzuk diren.

Zinez pentsatzen duguna esateko bezain ergelak ez genuke izan beharko: minutu erdiz ere ez baikenuke bizirik iraungo.

Zinez pentsatzen duena esaten duen idazleak laster idazle izateari utzi eta martiri bihurtuko da (edo hobeto esan, “bihurtuko dute”).

Bi herriren arteko ezinikusia konponezina izan daiteke. Eta hori gertatzen denean, bietako bat desagertu arte ez dute amore emango ez bata ez besteak. Hor hasten da historiatik desagertzeko bidea. Edonola ere, hori ez da nire arazoa. Ala bai...?

Gauzak garbi-garbi ikusten dituzten
bakarrak ergelak dira, ez baitira inoiz tronpatzen
(ezta guztiz tronpatzen direnean ere).

Batzuek ez dakite melankolia zer den. Hala
ere, poetak izaten tematzen dira...

Beste modu batez bizitzea izango banu,
beste modu batez biziko nintzateke (horrek berekin
herritartasuna galtzea ekarriko balit ere). Horri
deritzot nik gauzak garbi izatea.

Eraikin bat lurrera erortzen bada, garbi dago
arkitektoak bere lana gaizki egin duela. Itzulpen
batekin ere antzeko juzkuak egin ditzakegu. Hala
ere, oinarrizko maila batetik abiatuz gero, zailagoa
da horrelakorik egitea, subjektibotasunak gure
juzkuak aurrejuzku bilakaraz ditzakeelako.
Objektibotasunez juzgatzerik ez dagoena baztertu
egiten da, hoberik ezean. Eta inertziaz edo, hortik
tiraka, jarduera bera baztertzerira irits daiteke.
Mesfidantza doanik ateratzen ez den seinale –
onerako zein txarrerako izan.

Gu, gure lagunak, senideak, den-denak...
apeta baten ondorio baino ez dira. “*Libre
albedrio?*” Bo, gauza ñimiñoetarako akaso.
Garrantzizko ekintzak goitik behera inposatuak
ditugu-eta, goitik behera.

Bitxia da, gainera zer datorkigun jakinda
ere, hots, bizirik jarraitzea urte-kontua besterik ez
dela jakin arren, a zer-nolako kezka ematen digun
etorkizunaz pentsatzeak eta zeinen koldar eta
herabeti bilakatzen garen daukagun ongizate txikia
gal dezakegula pentsatze hutsaren aurrean!

Filosofiari hasieran “abstrakzioa” esaten
zitzaien. Gerora, abstrakzioari “filosofia” izena
eman zioten, hasierako izenaren abstrakzio basatia
gauzaturik.

“Berlin Alexanderplatz”, Alfred Döblin.
500 orriko liburua izateko, izugarri astuna iruditu
zait. Ez du zentzu estetikorik. Nagib Mahuf,
esaterako, zentzu estetikoduna da. Eta Bulgakov,
Pavese, Pushkin, Conrad, Flauvert, Lawrence,
Hesse, Mann, Camus, e.a. e.a. Horiek denak
estetikaren zentzua zeukaten literaturagileak ziren.
Baina Alfred Döblin ez; ez zen mota horretako

idazlea. Nire iritziz (eta nire gustuaren arabera), “Berlin Alexanderplatz” nobelak ez lituzke 500 orri izan beharko, 125 baizik. Horrelako planteamenduak egitea irakurlearen egonarriaz abusatzea dela uste dut. En fin, bizkorgarria gertatzen da ikustea, ezen, euskal idazleen artean ez ezik, kanpotar idazleen artean ere badirela benetako literaturagile “*muermoak*”; hori bai, argitaletxe “on” baten babesarekin plazaratuak... Dena den, guztia negatiboa izan ez, eta aitortu egin behar protagonista nagusiaren gorabeherak azkenean hunkitu ere egin nautela, eta liburua (*adokina*) bukatutakoan, nigan halako arrasto bat utzi dutela. Hala ere, argi eta garbi esan nahi nuke, ezen, ia antzerkiaren pareko hizkera motz horretaz kokoteraino amaitu dudala. Izango da nik literatur liburu batetik, istorio bat ez ezik, gertakari estetiko bat ere espero dudalako –eta gertakari estetiko hori, nola ez, eskrituraren, idazkeraren aldean topatu beharra daukat, beste ezein alderditan baino gehiago.

Mirarien kalezuloa, Nagib Mahfuz egiptoar idazlearena, Patxi Zubirretak itzulia. Hau ere, aurrekoa bezalaxe, benetako harribitxia, zoragarria. Zer nolako itzulpena. Zein ederra. Ez dut hitzik, benetan. Ereduak hortxe ditugu, itzulpenetan sakabanatuak. Bost axola zait gainerako guztia. Halako euskal itzulpen bat gaitzetsiko lukeen euskaldunari hauxe baino ez nioke esango: “Uztazu

euskara, zuk ez baituzu gure hizkuntza maite, ezta ulertzen ere”.

Dena den, Patxi Zubizarretak egindako bi itzulpen horiek “oka eginda” utzi nautela ere esan behar dut. Badakizue hoxaldre (hostopil) pastel handi horietako bat osorik jateak zer-nolako “betekada” sentsazioa uzten duen, ezta? Bada horrelako zerbait gertatu zait Nagib Mahfuz idazlearen itzulpenak irakurri eta gero, “bete-bete eginda” geratu naizelako sentsazioa-edo jabetu dela nitaz²... Orain, primeran egongo naiz hoxaldre pastelik jan gabe urtebete osoan. Hori bai, urtebete barru beste holako bat aurrean topatuz gero, berriz ere ahogozatuko dut bi bider pentsatu gabe!

“Marjinalia Bilduma” sortu arren, sekula ez naiz “marjinatua”(baztertua) sentitu. Izen bat baino ez da, literaturari bereziki dagozkion konnotazio jakinak dituena. Besterik ez. Gainera, zer dela-eta sentitu beharko nintzateke “baztertua”? Nire liburuak ohiko formatuetan ere eman ditut argitara, eta milaka ale jarri ditut “zirkulazioan” dirurik galdu/irabazi gabe. Literaturgintza, ordea, berez jarduera marjinala da. Hortik “Marjinalia Bilduma” izena. Milioika biztanleetatik milaka batzuk baino ez dira liburuzaleak, eta literatura onaren zaleak kopuruz behera doaz, literaturaren kalitatea (eta

² Oi, barkatu, purista jaun/andreok: ... nitaz jabetu dela.

zailtasunak beraz) handiagotu ahala. Horrez gain, egia da ezohiko bide batetik abiarazi behar izan dudala nire literatur ibilbidea, baina hori ere nire onurako izan daiteke, nire kalterako baino gehiago (gauzak nondik ikusten diren). Badakizue: originaltasuna, bide berrien jorratzea, ez nolanahiko zailtasunei aurre egiteko kemena... Liburu bakarreko idazletxo askok euren bizitzan zehar erakusten ez dituzten balioak alegia. Eta ez da nire buruari lore batzuk botatzeagatik, baina... zer arraiio! Batzuetan ozenki esan behar dira zenbait gauza.

Batzuek ez dakite noiz dauden liburu on/liburu txar baten aurrean. Hori dela eta, “adituengana” jo behar izaten dute “aholku” bila, “argitasun” eske. Nik, ordea, sektak mesprezatu egiten ditut.

“Hamlet”, William Shakespeare, Juan Garzia Garmendiak itzulia. Oso ederra, bai. Dena den, irakurketa ez da oso samurra, irakurleari halako ahalegin berezi bat eskatzen baitio (eta ni oso ohituta nago itzulpenak irakurtzen eta gozatzen...). Bai, aspaldian idatzitako antzerki-lana da, eta jatorrizko testuak ba omen ditu zenbait alderdi bihurri samarrak, entzun izan dudanez... Dena den, antzerki-lana baldin bada, pentsatzen dut

jendaurrean antzeztua izateko idatzita dagoela. Eta kontuan izan behar da, ezen, antzerkian erabili ohi den hizkera nahiko argia izaten dela (mezuak ilunak edota anbiguoak izan ahal direlarik ere). Baina zer gertatuko litzateke obra hau euskaraz noizbait antzeztuko balitz Ibaizabal Bildumaren 100. ale eder honetan agertzen den bezalaxe? Jendeak, ulertuko luke...? Esaldi bakoitza ongi adituko luke..? Eta beste galdera bat: obra hau XVII. mendean Ingalaterran antzezten zenean, euskarazko bertsioak eragiten duen efektu berbera eragiten al zien orduko ingeles ikusleei? Eta beste modu batez galdetuta: obra hau gaur egun Ingalaterran antzezten denean, euskarazko bertsioak eragiten duen efektu berbera eragiten al die gaur egungo ingeles ikusleei?

Euskaraz soil-soilik irakurtzeak itzultzera narama (pasibo bihurtzen nau); erdaraz asko irakurtzeak, berriz, idaztera narama (aktibo bilakatzen nau). Beharbada, ez da egia. Eta izango balitz, zer?

Dena da engainu hutsa: gure jatorriak, gure natura, gure izaera... Egia bakarra, haxe: nahi (eta ahal) duguna izan gaitezke.

Konturatzen garenerako, urte gehiago ditugu atzetik aurretik baino. Betiko kontua, gizakia gizaki denetik...

Joandako garaietatik mamu antzo topatzen ditugun pertsona ezagunak. Kasu gehienetan, deseroso izaten da; aldi bakanetan, atsegina. Halakoxea da bizitza; halaxe urruntzen gaitu.

Literatur itzulpengintzak eskaintzen didan eredia dut gogokoen. Horretarako, baditut arrazoi aski agerikoak, pertsonalak ia-ia. Hizkuntza baten estetika oso-oso malgua izan daitekeela ahaztu gabe. Eta zer esanik ez, hiltun batena.

Denbora gehiegi pasatzen dugu hizkuntzari buruz gogoeta egiten. Eta bien bitartean, beste batzuek sateliteak bidaltzen Martitzera, Neptunora, unibertsoa... Ez ote gara izango Printze Txikiak bere bidaian topatzen zituen planetatxo haietan harrapatutako gizon triste, egozentriko eta patetiko horietakoren bat...?

Gizakiak egitea daukanak miresten nau; eta egiterik ez daukanak ikaratzen.

Euskaldunok albo batera utzi beharko genituzke geure buruari, geure senideei eta geure lagunei kaltea dakarkien guztia. Baina besteengatik ez, gugatik baizik.

Komunismoa ondo joan zen, Stalinekin boterea erdietsi zuen arte. Hala ere, krudelkeria higuigarria izan zen Zar ohiaren familia osoa (haurrak barne) hilaraztea. Ekintza hark zerbaiten amaiera ekarri zuen berekin.

Onartzen ditudan krudelkeria bakarrak: fantasiazkoak.

Literatur kritikariak eta aldi berean idazleak/kulturgileak. Gehienak honela dabilta: nik gaur zugatik eta zuk bihar nigitik. Gero, irakurle bat bere iritzia ematen ausartzen denean, urduritu egiten dira, eta elkarri galdezka hasi: “Baina, baina nor ote da hori?; nola ausartzen da liburu horretaz bere iritzia publikoki esaten?; baina

ba ote dago prestatuta jakiteko liburu bat ona ala txarra den?; baina zer titulazio dauka bada?

Eta egun batean, ahate itsusia ohartu zen beltzarga eder bat zela. Orduan, oilo guztiak kakaraka hasi ziren.

Gero eta gehiago preziatzen ditut ohiko portaerak eta joerak, fantasiak ez baitira errealitatearekin nahasi behar. Eta horretarako, nahikoa da naturaren ahotsari kasu egitea. Edonola ere, bakoitza bere gisa ibil dadila. Gorrotorik gabe, benetan.

Atsegin dut Astigarragan bizitzea. Baina txakur gehiegi daude. Eta txakur-jabe askoren aldetik, edukazio falta ikaragarria. Eguneke edozein ordutan txakurrak zaunka eta zaunka: egunez, arratsalde, gauez... Hortxe, balkoietan, edo euren etxe aurreko lorategitxoetan... Txakur horien jabeei isunak jarri beharko lizkiekete, baina inork ez die isunik jartzen.

Izaera primitiboak sekulako zama dira munduko edozein kulturarako. Gure kultura ere ez da salbuespen.

Eskuindarrak ezkertiarak bezala jokatzeko bukatzea nahiko gauza ezohikoa da; baina ezkertiarak eskuindarrak bezala jokatzeko bukatzea kontu erabat arrunta da. Boterearekiko gutiziek badirudi usteltzen gaituztela.

Subjektibitateak erabat baldintza dezake kritikarako gure ahalmena, eta asmorik onenak irauli.

Dena den, kritikari batzuen kasuan, subjektibotasunaren beldur izateko motiborik ez dago: objektibotasun osoz dituzte euren asmorik onenak iraultzen eta.

Herri txikien etsairik beldurgarriena, galgarriena: arrunkeria. Horixe da borrokatu behar dugun arerioa.

Izan gaitezen herri kulturaduna. Eta independentzia lortzeko bidearen hiru laurdenak (edo gehiago) eginda izango ditugu.

Badakiguna badakigu zer den; ez dakiguna, ordea, ideiarik ez.

Neguko hilabeteetan lotan gelditzen zen idazlea, hartza bailitzan. Gero, udaberriarekin, berriz ere esnatzen zen. Haren bizialdi naturala horixe baitzen.

Inoiz ez diogu uzten haur/gazte izateari; arazoa gure gorputzarena baino ez da.

Euskal idazle batzuk hizkuntzaren alderdi formalaren ikuspegitik baino ez dira idazle; sormenaren ikuspegitik, berriz, oso balio eskasekoak dira.

Oso ederra Juan Garzia Garmendiaren Hamlet antzerkia. Erreplika bene-benetakoa. Bildumako 100. harribitxiari ezin bukaera eman dotorezia handiagoz.

Eta kontua da zera, nola bereiz ditzakegu negatiboki eragingo diguten sentimenduak eta positiboki eragingo digutenak? Erantzuna da ezin ditugula bereizi. Gehienara, indar egin dezakegu, balantza gehitxo desoreka ez dadin. Azkenerako, ordea, kirasturik bukatzea ezin izango dugu eragotzi.

Pentsamendu-harrapaketa arrain-harrapaketa bezalakoa da: esertzen zara zain, kanabera eskuan, amua botata ibai-ertzean, eta itxoiten duzu arrainak amua noiz irentsiko. Arrainik bada, lehenago edo beranduago, gauzatuko da arrantzaldia. “Baina, eta pentsamendurik ez balego...” Orduan, jaso arrantza-tresnak eta zoaz lotara. Saiatuko zara biharamunean.

Idazkera ona, aberatsa eta zuzena txar, pobre eta ezbaiko bihur dezakegu geure gogoaldatearen arabera eta batez ere geure borondate

on edo gaiztoaren arabera. Hori edozeinek daki (baita kritikariek ere –uste dut–).

Liburu bat ona edo txarra den ez dakien irakurleari on egingo lioke irakurtzeari uzteak.

Ausartak izan behar dugu. Berdin dio etiketak zer dioen. Axola behar zaigun bakarra gure iritzia da. Liburua gustatu bazaigu, orduan liburu ona da; ez bazaigu gustatu, orduan liburu txarra da (ez zentzu kolektibo batean, zentzu indibidual batean baizik. Eta irakurketa, gogora bedi, ez da masazko gertakaria; irakurketa gizabanako bakoitzean gauzatzen da, biribiltzen da, irakurlea –barne-isiltasun batean bilduta– mundutik isolatzen denean –behintzat, irakurketak dirauen bitartean–).

Zer dira, orduan, kritikariak? Bada kasurik hoberenean, ameslari batzuk baino ez (asmo onez esanda). Eta kasurik txarrean, botere-egarritsu batzuk baino ez (hala-holako asmoz esanda); edo are okerragoa, argitaletxeen marketing-estrategien zerbitzuan diharduten espekulatzailerik, inkisidore petoak –noiz-eta ideologia politiko-ekonomiko-sozialen maskaradan parte hartzen ez duten– (asmo txar-txarrez esanda).

Gure herriak eta gure hiriak zuhaitzen azpian ezkutatu beharko genituzke, eta leku ñimiño bakoitza ongi-ongi aprobetxatu bertan loreak, hesiak, belardiak eta mota guztietako landareak hazteko. Horrek izadi idealetik hurbilago jarriko gintuzke eta ondorioz zoriontsuagoak sentituko ginateke.

Auzo baten bakea eta lasaitasuna hausten dituen txakur-zaunka delitu larritzat jo beharko litzateke.

Batzuei barrua pozoitu egiten zaie (Hyde jaun bilakatzen dira); eta hortik aurrera, euren onberatasuna berriz aurkitzeko egiten dituzten saio guztiak ustel gertatzen zaizkie (ezin dira berriz ere Jekyll doktorea izan). “Batzuei” ala “denoi”, gure bizitzako garai jakin batean edo bestean...?

Haurtzaroa ote da garai aratz bakarra? Eta, zer da “aratz” izatea? Bekatu gabea...? Orduan, hori ez al da kristautasunaren eragina...? Baina, kristautasuna baino lehen, zer? ez al zegoen “ona”

eta “txarra” bereizteko inolako koderik? Eta baldin bazegoen, orduan horren eragina jasoko zuen kristautasunak berak, ezta? Orduan, jarraian egin beharreko galdera da... zer izan zen lehenago, oiloa ala arrautza?

*** idazleak nire etxeko atea jo zuen eskuaz. Ireki nionean, esan zidan kontent: “Kaixo, hire borrarera nauk”. Nik pasatzen gonbidatu nion, eta justu une hartan botoia sakatu eta gillotinak bitan banatu zion gorputza. Saiatu nintzaion azaltzen haiek diglosiaren ondorioak baino ez zirela, baina ez zidan sinetsi nahi izan eta besterik gabe hil zen. Bi loreontzitan lurperatu nuen. Batean bitxiloreak eta bestean *boniatoak* landatuta neuzkan (ez batak ez besteak zuten aurrera egin).

Alaiki behar dugu idatzi, alaiki bizi eta alaiki kantatu. Utz ditzagun penak babaloreentzat.

Egunen batean, sartuko gara irtengo ez dugun gaixotasun batean. Begiak itxiko ditugu betiko...

Fidel izan beharraz, Oscar Wilde. Zeinen liburu polita, zeinen adimentsua. Harribitxi bat. Zoragarria.

Badaezpadako euskal irakurle batzuek jarrera “mesfidatia” erakusten diete oraindik euskal itzulpenei. “Itzali bai, baina jatorrizko testua itzali gabe”, esa ohi dute ausart... Nik, ordea, galde egiten diot neure buruari euskal irakurle batzuk ez ote diren euskarazko itzulpen asko eta asko itzaltzen dituztenak... euskarazko euren kultur *bagaje* eskasarekin. Izan ere, oso erraza baita itzultzaileari errua botatzea, noiz-eta errudun bakarra irakurlea den. Euskarazko itzulpengintzak urte luzeetako bidaia du egina. Nik ez dut uste gaur egun izen oneko euskal argitaletxe batek itzulpen kaxkar bat argitara dezakeenik. Horregatik, duela hogeitaz urte esandakoak gaur egun ere errepikatzen jarraitzea, iruditzen zait norberaren akatsak, eskasiak eta erruak itxuratzeko baino ez dela. Hemen erantzukizunak eskatu behar zaizkio, ez bakarrik itzultzaileari, baina baita irakurleari ere. Edo bestela, bakoitzak ezagut dezala pixka bat hobeto bere burua, eta jakin dezala bere kultur funtsak noraino eraman dezakeen eta noraino ez.

Barrutik hutsik bagaude, orduan hutsik gaude, eta kito. Ez dago zer eginik, *alforjak* berriro betetzea baizik.

Hil eta gero, berpizkundera. Eta berpiztu eta gero...? Hauxe bai dilema.

Garai batean, jendeak Biblia baino ez zuen irakurtzen; gaur egun, berriz, Prentsa baino ez du irakurtzen (geroz eta gutxiago, hori bai).

Ikuspegi lurtarrak lekua kendu dio ikuspegi zerutarrari, irabazirikoetan galduz galdurikoetan irabazi duguna. Zer egingo diogun, ba: gizakia beti izango da poker-jokalari sendaezina.

Zeinen harroxkoak garen: nola tematzen garen geure iritziak ematen aditzera...!

Berekin arriskua dakarren etorkizuna, bi modutara eragiten digularik: beldurrarazten edo kitzikatzen.

Esperpentoa... denok mehatxatzen gaituen munstro lazgarria, kultura guztietan menderen mendetan bizirik irautea lortu duena.

Batzuetan (ez beti, zorionez) idazleei gertatzen zaie hiltun zenbait gertatzen zaiena: ez dakitela isilik egoten isilik egon behar luketenean. Eta hori ez da deformazio profesionala; hori profesioaren (lanbidearen) deformazioa da.

“Hamaika ikusteko jaioak gara”. Bai, baina askoz gehiago dira ikusi gabe oharkabeen pasatzen zaizkigunak. Beraz, “hamaika ez ikusteko hilak gara”.

Hizkuntzarekin jolastu behar dugu; hizkuntzarekin jolasten ez bagara, orduan ez du merezi ezer idaztea. Jostatze-kontua da, sufritze-kontua baino gehiago. Sufritzea geroago etorriko da, hilabete bukaeran...

Sufrimendua besterik eskaintzen ez duten ideologiak sutara bota beharko genituzke. Txarrena da: geratuko ote litzaiguke ezer errauts bihurtu gabe...?

Gizarte hiper materialistan ezertarako behar ez duguna da gehien inporta zaiguna. Gero komeriak izango dira, geure bizitzak postal *publizitario* bihurtzeko arazoekin topo eginda.

Bizitzako alderdi *epikureoak* dira interesgarrienak. Beste kontu bat da alderdi horiek ba ote ditugun eskura, ala ez... Zertarako balioko digu praktikatu ezin dugunak?

Balio duen aberri bakarra: gizabanako bakoitzarena. Bitik aurrera, aberria aienatu eta inperioaz mintzatzen hasi behar.

Badago zientzia metafisiko bat, metafisika erlijiosoaren jarraipena besterik ez dena. Zer esanik ez, ez batak ez besteak dute ezertarako balio. “Ez, baina distraitu egiten gaituzte”, esango du baten batek, ez arrazoirik gabe.

Irakurle: barka nazazu, mindu bazaitut
(inoren ahotan gutxitan entzuten den barkamen-
eskea; are gutxiagotan, zin-zinez esana).
